



25 urte Elorrioko merkataritzan eragiten

Elorrioko Merkatarien Elkarteak zilarrezko ezteiak bete ditu. Gaur ospakizun gala egingo dute Arriolan, eta aurrerantzean tinko jarraituko dute herria eta komertzioak biziartzat. / 2-3

Elorrioko Merkatarien Elkarteak kideetarako batzuk.

INGURUMENA

"Utzikeria" eta "lixibiatu isurketen arriskua" zabortegean

Jaurlaritzaren txosten batek dio ingurumen arazoak errepikatu daitezkeela mantentze-lanik egin ezean. Udalak urgentziatzeko bilera eskatu du / 9



EUSKO JAURLARITZA

ERRONKA

Jon Arrizabalaga zaldibartarrak herrikideen eta lagunaren omenaldi hunkigarria jaso du / 9

MARTXOAREN 8A

Durango kaleak Martxoaren 8ko aldarriekin beteko dituzte domekako manifestazioan / 4



Fp LANBIDE HEZIKETA ATE IREKIAK

Oinarritzko, Erdi Mailak Bizikleta Esp.

Martxoak 11 17:30tan

Goi Mailak Zibersegurtasun Esp.

Apirilak 15 17:30tan

946810058

www.maristak.com



Goian, Itziar Solozabal eta Iratxe Mediavilla. Behean, Inma Gallego, Ana Larrea eta Izaskun Agirre.

"Herrikoak gara eta komunitatea lantzen dugu; horrek ematen digu indarra"

EME ELORRIKO MERKATARIEN ELKARTEKO KIDEAK

Elorrioko Merkatarien Elkarteak 25 urte egin ditu. Ana Larrea, Itziar Solozabal, Iratxe Mediavilla, Izaskun Agirre eta Inma Gallego dira dendarietarikoz batzuk

Ekaitz Herrera MERKATARITZA
Solozabal altzari eta dekorazio dendako arduraduna da Iratxe Solozabal, eta Malda Bikes bizikleta dendako kidea Iratxe Mediavilla. Inma Gallegok tokiko elikagaiak saltzen ditu Anbotopeko dendan, eta Ana Larreak urte ugari darama Japi arropa eta osagarri denda zuzentzen, Izaskun Agirrek daraman beste Izara tapaki, barruko arropa eta izara dendan. Bostak EMEko kide dira eta elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute gaur, barikua, herrikiideekin eta gainerako dendariekin.

Zorionak urteurrenagaitik. Zelakoa ari da izaten efemeridea?

Iratxe Mediavilla: 25. urteurrenean murgilduta egon arren, lanean buru-belarri jarraitzen dugu. Gu denok elkarteko batzordekideak gara. Astelehenero-astelehenero batzen gara el-

karteari jarraipena egiteko eta urteurreneko ekitaldiak antolatzeko. Ni, adibidez, hasiberria naiz. Baina ondokoek urte askoko esperientzia dute elkartearen. **Izaskun Agirre:** Beste leku askotan legez, errelebo falta bizi dugu elkartearen. Baina, hala eta guztiz ere, indarrez jarraitzen dugu herria eta gure dendak aurrera ateratzen. Pozik gaude. **Elkartea martxan ipini zenutenean, 25 urte betetzera helduko zinetela pentsatzen zenuten?**

Ana Larrea: Egia esanda, ez genuen halakorik pentsatzen! Bidea apurka-apurka joan gara egiten, eguneroko lanagaz. Lehen bazkide gehiago ginen, eta orain askoz gutxiago. Leku guztietan legez, hemen ere dendak ixten joan direlako. Gaur egun, dandenei indarra eta ikusgarritasuna emateko lanean gabilta, dena Interneten ez dagoela esaten,

herria biziartzen. Gure elkarteko goiburua dioen eran, *EMEn bertan gaude* esaten.

Zenbat bazkidek hasi zenuten bidea?

I.A.: 100 pasatxo hasi ginen, eta gaur egun 51 gara. Bidean ez dira itxierak bakarrik egon, dendari asko jubilatu egin da eta. Akordatzeko naiz elkartea sortzeko proposamena udaletik heldu zitzaigula. Bixente Aizpurua zena talde independenteko zinegotzia zen orduan, eta berak planteatu zigun merkatarien elkartea sortzea. Berak ekin zion bideari, erakusleihen txapelketak, laguntzak eta halakoak sortzen.

A.L.: Ilusio handiz hasi genuen bidea, eta oso testuinguru berezian. Izan ere, gogoratzen naiz KZ Gunera joaten ginela, ordenagailuak maneiatzen ikastera. Nik behintzat ez nekien sagua bera ere erabiltzen! Horrez gainera, ikastaro ugari egiten ge-

nuen, erakusleihoak zelan atondu ikasteko.

Eta zelakoa izan da komertzioen bilakaera?

I.A.: Dena aldatu da. Errelebo faltari buruz berba egiten dugu askotan, baina konturatzen zara neurri batean normala dela erreleborik ez egotea. Joera ikusi besterik ez dago. Ez da herrietan edo denda txikietan erosten. Beraz, nork hartuko du negozio hori? Oso gatxa da. Jendea ez dago prest astelehenetik zapatu-ran dendan ordu mordoa sartzeko, ezta etxean dendako kontuekin jarraitzeko ere.

Itziar Solozabal: Lehen, adibidez, erakusleiho dekoratzaileak kontratatzen genituen. Baina gaur egun guk geuk egiten ditugu lan horiek. Berdin bulego lanak zein sare sozialak elikatzeak ere. Azken finean, autonomoa den edonori hirukoiztu egin zaio lana, zuk zeuk egin behar duzulako dena.

Inma Gallego: Eta horri guzti horri alokairua, soldata duina, baldintza duinak eta gainerako guztia batzen zaio. Hor bilatu behar dira arrazoiak.

Komertzioen tipologia ere asko aldatu da?

I.A.: Orain urte bi kanpaina bat egin genuen herriko kaleetan, lokal bakoitzean historikoki zein denda mota egon zen jakinarazteko herritarrei. Harrituta geratu ginen garai batean *ultramirino* edo denerik saltzen zuten zenbat elikagai denda zegoen ikusita.

A.L.: Beharbada, gaur egun ez dago denda asko Elorrian, baina daudenak kalitate gorenekoak dira. Primerako arreta eskaintzen dugu.

Zerk ematen dizue aurrera egiteko indarra?

I.G.: Herrikoak gara eta komunitatea lantzen dugu. Beti ahalegintzen gara gure dendara datorrena behar den moduan zaintzen. Horrek ematen digu indarra. Adineko herritarren artean, adibidez, elkar zaintzearen balioa ikusten dugu. Arreta ematea, elkarri zer moduz gauden galdetzea, saltoki handiren batean topatu ezinik ibiltzen dena gure bitartez lortzea... Adinekoek asko eskertzen dute hori. Gainera, geroago eta gehiago dira gugana datozen adinekoak. Zerbaitegaitik da hori.

Zelan eragin dizute Internet bidezko erosketek?

I.G.: Iruditzen zait hori denok igarriko gurela etxean, gure

bizitzan. Ezin dugu inoren epaile izan. Dena dela, kontua ez da Internet bidezko erosketak bakarrik, erosketa hori konpultsiboa izatea baino. Segituan gura dugu dena, atoan. Askotan ez gara jabetzen telefono dei bat eginda herriko denda batean topatu dezakegula behar dugun hori.

A.L.: Era berean, ez dugu kontuan hartzen Interneteko erosketen eragina. Banaketaz arduratzen direnen soldata, domeketan banaketak egin beharra, kutxen kartoiak, garraioen erregaia. Ez dirudi oso aukera ekologikoa.

Ez dakit kasualitatea den, baina elkarteko batzordekide guztiak emakumeak zarete.

I.G.: Izan ere, horixe da sektorearen argazkia: emakumea. Nahiz eta, jakina, gizonezkoak ere badauden.

I.A.: Esango nuke iraganeko inertziei loturiko zeozer dela; lehen, akaso, denda bat izateak zaintza lanak egitea errazten ziolako amari. Hau da, etxetik gertu lan egiteko aukera eskaintzen zizun, baita umea uneraren batean denda zaintzeko aukera ere. Eta, akaso, joera hori gaur egunera arte ailegatu da.

A.L.: Ostalaritzan, ostera, kontrakoa gertatzen da. Gizonezkoa da nagusi.

Arriolan ondo merezitako urteurren ekitaldia egingo duzue gaur.

I.A.: Urteurren jaia gaur egingo da, baina ospakizunak ez dira horretan geratuko. Denda bakoitzaren kanpoaldean ikur bat ipiniko dugu 25 urte direla esateko, eta ekintza gehiago antolatzen joango gara.

A.L.: Laster Korrika ere badator, eta, betiko moduan, parte hartuko dugu. Azken finean, herriaren parte gara: eskolak, Korrika, dantzak... herrian sartuta gaude eta pozik jarraituko dugu herrian lanean.

"Arreta, elkarri zer moduz gauden galdetzea... Adinekoek asko eskertzen dute hori"

"25. urteurreneko jaia gaur egingo dugun arren, ospakizunak ez dira horretan geratuko"

Merkataritza baino askoz gehiago



EME

Village People taldearen pare. 2020a izurri urtea izan zen arren, EMEk umore ona kaleratzea erabaki zuen. Dendariek zur eta lur utzi zituzten Elorrioko eta eskualdeko bizilagunak, spot berezia kaleratu zuten-eta Village People taldearen YMCA abesti ezaguna oinarri hartuta. "Gurozun guztixa Elorrixon, Biozun guztixa Elorrixon", adierazi zuten abestiaren errepikan.



EME

Irudimena kanpaina bakoitzean. Elorrioko dendariek beti jakin izan dute herriko salerosketak zelan bultzatu, eta *EMEn Herria* mahai-jolasa kaleratu zutenekoa da horren erakusle. Monopoly joko entzutetsuaren antzera, merkatariek Elorrioko historia eta udalerriko dendak ezagutzeko aukera eskaini zieten jokalariei. Hainbat mahai-jolas zotz egin zuten erosleen artean.



AEK

Euskararen bultzatzaile. Elkarteko kideek Korrikaren edizio guztietan erosten dute kilometroa eta aurten ere AEKren egitasmoagaz bat egingo dutela aurreratu dute. EMEn eragin esparrua merkataritza baino askoz gehiago delako, eta, dendariak izateaz gainera, euskaltzaleak direlako. 2024ko Korrikan San Agustinetik Atxondorako tartean eraman zuten lekukoa.

EMEn gala, gaur, Arriolan

Arriola aretoa glamourrez beteko da gaur Elorrioko Merkatarien Elkartaren galan. Ekitaldia 20:00etan hasiko da, bertaratzen direnen *photocall*az. Behin ongietorriak amaituta, arreta oholta gainean ipintzeko unea izango da. "Bideoak proiektatuko ditugu eta elkarteko kideak ikusiko ditugu

horietan, euren esperientziak kontatzen. Era berean, ez da musikarik faltako, eta, jakina, ezta sorpresarik ere", iragarri du Ana Larrea EMEko kideak eta Japi arropa eta osagarri dendako arduradunak. Ekitaldia amaituta, luntxa egingo dute, eta 21:30ean musika jartzaileak egongo dira giroa berotzen. Jaia 23:30ean amaituko dute.



Arriola antzokia.

Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp kanaleko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu QR kodea

Izan zaitetz berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak



Joseba Derteano DURANGO

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat dira eskualdean dauden deialdiak. Durangoko Mugimendu Feministak, esaterako, manifestazioa antolatu du domekarako. Ezkuritik abiatuko da, 12:30ean. Martxoaren 8ko aldarriak kalera aterako dituzte 'Beste mundu bat, beste Durango bat feminismotik' goiburuagaz. "Askotariko mugimenduetatik gabilta eragiten, baina argi dugu ez dugula feminismorik eta antiarrazismorik gabeko mugimendurik nahi, ezta mundurik ere. Horrexegatik diogu 'beste mundu bat feminismotik'. Eta hori lortzeko, antolakuntza eta borroka dira gure armarik indartsuenak", dio Martxoaren 8aren harira Euskal Herriko Mugimendu Feministak publiko egin duen mezuak.

Aurten ere kalera irteteko arrazoiak "sobran" daudela adierazi dute. "Desberdinkeriak areagotzen ari diren garaiotan, zapalduak are zapalduago dira, eta boteretsuak are boteretsuago. Eta hori, errealitate materialetan ikus dezakegu; etxebizitzarako sarbidea nork duen eta nork ez,



Durangoko Mugimendu Feministako kideak, astelehenean antolaketaarako egindako batzarrean.



Martxoaren 8ko aldarriak kalera aterako dituzte domekan, Durangoko manifestazioan

Durangoko Mugimendu Feministak antolatuta, Ezkurdin hasiko da, 12:30ean

baliorik gabeko lanetan nor dabilen eta nor ez, ea nork egindako lanak diren prekarioenak, nor den hainbat eskubideren jabe eta nor ez eta abar. Finean, nor kolpatzen duen geroz eta gehiago sistema kapitalista zishe-

"Argi dugu ez dugula nahi feminismorik eta antiarrazismorik gabeko mugimendurik"

EUSKAL HERRIKO
MUGIMENDU FEMINISTA

teropatriarkal kolonialista eta arrazistak", azaldu dute.

Data gehiago

Domeka honetako hitzorduez harago, martxoan "feminismotik langile klasearen alde borroka-

tzeko" beste hainbat deialdi dagoela gogoratu eta eurretan parte hartzea deitu dituzte herritarrak. Martxoaren 17rako sindikatuek deitutako greba orokorra da lehenengoa. "Feministok asko dugu esateko 2023ko Greba Feminista Orokorrean ezarritako mugarri eta aldarrietatik", zehaztu dute. Ondoren, martxoaren 21ean, arrazakeriaren kontrako eguna dator. "Mugimendu Feministaren ustez, zuriok oraindik asko dugu egiteko dugun boteretik desplazatzeko eta arrazakeriak suposatzen duen indarkeria mozteko", gaineratu dute.

Etxeko eta zaintza langileen eguna ere gogoan izan dute, martxoaren 30a. Zaintza lanak "prekaritatearen, emakumearen eta arrazakeriaren sinonimo" direla salatu eta "sistema publiko bat" aldarrikatzen dute. Azkenik, martxoaren 31 da gogora ekarri duten beste data bat, Trans ikusgarritasunaren eguna. "Trans gorputzak ere sistemak jo puntuan dituen gorputzak gara, baina ez gara soilik gorputz zapalduak. Alternatiba gara eta hori aldarrikatzera irtengo gara", arrazoitu dute.

Belako, J Martina, Merina Gris, Naxker eta Anari 'Oihu Bat Palestinara' jaialdian

Ekaitz Herrera DURANGO

Landako Guneak Palestinaren aldeko musika jaialdia hartuko du martxoaren 21ean, Palestina-ekin Elkartasuna dinamikak antolatuta. Jaialdiak lehen lerroa ekarri gura du han gertatzen dabilena, eta "ezinbestekotzat" jo dute isiltasun mediatikoa apurtzea, "herri palestinarraren erresistentziari babesa" adieraztea eta Euskal Herriagazko "errepresioari" erantzutea. Azken horri dagokionez, gogora ekarri dute Espainiako Vueltan Palestinaren aldeko hainbat ekintzaile irten zela errepidera, lasterketa oztopatzera, eta haietariko hainbatek isuna jaso dutela. Hori dela eta, jaialdian baturiko diru guztia "Palestinaren aldeko borroka sostengatzera eta hemen jasandako errepresio ekonomiko zein judiziala arintzera" bideratuko dute.

Txartelak sarrerak.oihubat-palestinara.eus atarian erosi daitezke 15 euroan edo 25 eu-

roan. Musikari hauek arituko dira jaialdian: Ahmed & Nur, Anari, Belako, Bengo, Borla, Chulería, Joder!, Dena, Ezezez, Eire, La Furia, Gailu, Hofe, Ibil Bedi, J Martina, Ke Lepo, Kiliki, Lukiek, Malakias, Maruxak, Merina Gris, Mursego, Naxker, Nize, Ødei, Olatz Sal-

vador, Silitia eta Mateo Zikuta & Calie. Horiez gainera, honako hauek ere parte hartuko dute: Maialen Lujanbiok, Nerea Ibarzabalek, Antton Telleriak, Asier Kk, Amets Arzallusek, Txaber Altubek eta Nondik Inora Abiatuk (Nabiga Kolektiboa).



J Martina jaialdian parte hartuko duen taldeetarikoa bat da. J MARTINA

Durangoko Udala Babesleku Klimatikoaren Sarea eratzen hasi da

E.H. DURANGO

Durangarrak klima aldaketaren eraginetatik babesteko asmoz, udala Babesleku Klimatikoaren Sarea eratzen hasi da: "Ibai uholeak, lehorteak, muturreko tenperaturak eta bero boladak ohi-koagoak bihurtu dira. Egoera horrek eragin zuzena du herri-tarren osasunean eta hirietako eguneroko bizitzan; horregaitik, ezinbestekoa da egokitzen neurriak hartzea", arrazoitu du udalak egitasmoa. Hori horrela, "eremu freskoak" identifikatu gura dituzte. Udal eraikinak, elizak, museoak, parkeak eta berdeguneak txertatuko dituzte babesleku klimatikoaren sarean.

Udalaren azterlan batek erakutsi duenez, udalerriaren kalteberatasuna "ertaina" da eta Durango Autonomia Erkidegoko udalerrien %80 baino posizio txarragoan dago. Besteak beste, 8 metro karratu berdegune dago biztanleko, Munduko Osasun Erakundeak ezartzen duen gutxienekoaren azpitik.

Rudron arroila eta Belagua, Alpinoren hurrengo irteerak



Alpino taldearen irteera bat. ALPINO

E.H. DURANGO

Alpino Tabira mendi taldeak prest ditu martxoko irteerak. Zapatuan, martxoak 7, Legar-mendi inguruak zeharkatuko dituzte AEKren Mendilagun programa oinarri hartuta. Martxoaren 14tik 15era mendi-eski ikastaroa egingo dute Belaguan, eta Bizkaiko Biraren hurrengo etapa Balmasuden inguruan. Egun batzuk aurrerago, martxoaren 22an, Rudroneko arroila (Burgos) ezagutzera joango dira. Hilea Anbotoko magalak ezagututa amaituko dute, Besaide taldekoekin batera (hilak 28).

Greba orokorrerako motorrak berotzen hasi dira Durangaldean

ELAk delegatuen bilera eta manifestazioa egin ditu Durangon. Gutxieneko soldata 1.500 euroan ezartzea eskatu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek greba orokorrera deitu dute martxoaren 17rako. 1.500 euroko gutxieneko soldata ezartzea izango da lanuztearen oinarri nagusia, eta gutxieneko kopuru hori bermatzeko eskatuko diete Confebaski eta Nafarroako Enpresarien Elkarteari. Era berean, sindikatuek "ekimen politikoak abiatzea" eskatuko diete Eusko Legebiltzarrari, Nafarroako Legebiltzarrari eta Espainiako Diputatuen Kongresuari. Langileen Estatu-

tuaren 27. artikulua aldatu gura dute, Autonomia Erkidego ba-koitzak, tartean Euskadik eta Nafarroak, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata definitzeko aukera izan dezan.

Lanuztera deitu duten sindikatuen berbetan, bizimodua "garestitu" egin da 2008tik hona, "baina soldatak ez dira neurri berean igo". Eta, ondorioz, "egungo soldatek ez dute oinarritzko gastuei aurre egiteko aukera ematen, eta horrek herrikide eta auzokide askoren bizitza soziala mugatzen du", adierazi dute.



ELA sindikatuak manifestazioa egin zuen martitzenean Durangon.

Martitzenean, ELA sindikatuak manifestazioa egin zuen Durangoko kaleetan. Uribarri Irigoras eskualdeko arduradunak grebarako arrazoiak azaldu zituen: "Argi dago gaur egungo gutxieneko soldatagaz

ezin garela hile amaierara ailegatu. Gure soldatek geroago eta pisu txikiagoa dute aberas- tasunaren banaketan. Hori dela eta, 1.500 euroko gutxieneko soldata behar dugu, eta hori hemen erabaki".

Laguntzak Durangoko gazteentzat etxebizitza alokairua ordaintzeko

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak 50.000 euroko diru atala prestatu du 18tik 35 urtera bitarteko gazteen iazko etxebizitza alokairuetan laguntzeko. 2025eko alokairuen %30etik %50era arteko kopuruan lagunduko dute, 435 euroko mugagaz hileko. Eskatzaileen diru sarrerak ezingo dira 28.490 euro gordin baino gehiagokoak izan urtean, eta hileko etxebizitza alokairua ezingo da 850 euro baino gehiagokoa izan. Halaber, eskatzaileek Durangon erroldatuta egon beharko dute, eta udalerriko etxebizitza bat errentan izan beharko dute. Eskaerak HAZ bulegoan egin behar dira, martxoaren 27a baino lehenago.

'Ekuirnokzioa', Durangora ailegatzear



Aurreko edizio bateko argazki bat.

E.H. DURANGO

Kuir Eztanda kideek identitate eta sexualitate disidenteen topaketa egingo dute martxoaren 14an Durangoko gaztetxean. Ohikoa duten eran egingo dute, aliantzak, aldarrikapena, parranda eta beharrezko girgileria guztia erabilita. Aurtengo egitarauan Durangoko memoria historikoa, Getxoko adineko LGTB herritarren esperientziak, bazkaria eta ikuskizunak batu dituzte.

Mankomunitateak aurturten ipini gura du martxan Abadiñoko eguneko zentroa

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Mankomunitateak 10,47 milioi euroko aurrekontua onartu du 2026a kudeatzeko, iazkoa baino %8,3 handiagoa. Kontuek EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz aurrera egin zuten joan zen astean (Abadiñoko Independente Berriak eta Garaiko Herriko Taldea ez ziren osoko bilkuran izan).

Arlo sozialak hartuko du aurrekontuaren zatirik handiena, 6,74 milioi euroguz (iaz baino %5,97 gehiago). Kopuru horregaz, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak indartu gura dituzte, eta adikzioen programei eta adinekoen arreta psikologikorako programari eutsiko diete. Halaber, Man-

komunitateak jakinarazi du aurturten ipini gura dutela martxan Abadiñoko eguneko zentro berria. Haren garapena "lehenengo urte operatiboaren ondoren" ebaluatuko dute, hartara "etorkizuneko handitzeak zehazteko".

Aurrekontuko beste 2,73 milioi euro tokiko garapenerako erabiliko dute. Mankomunitateak geolokalizaziorako eta pisaketarako sistemak ipiniko ditu hondakinak batzeko kamioietan, eta "profil tekniko espezializatu berri bat" sortuko du DEK (Durangaldea Enpresa Ekimena) bultzatzeko. Barne egitura administrati- boari dagokionez, lanpostu tek- niko berri bi sortu gura dituzte Giza Baliabideak eta arlo ekono-



Mankomunitatearen egoitza.

mikoa kudeatzeko. Mankomunitateko presidente Otaduyk aurrekontuaren ikuspegi orokorra defendatu du, kontuek "zerbitzu publikoen oinarritzko funtzionamendua" bermatzen dutelako eta "ongizate eredu indartzen" du- telako.

Zatoz ate irekietara!

AUKERARIK ONENA, ETORKIZUNA DUENA

MARTXOAK 24

ArmeriaEskola[®]

Gazteei zuzendutako Formazio eta Enplegu Azoka egingo dute Zornotzan, lehenengoz

Zornotzako Udalak antolatutako ekimena apirilaren 16an egingo dute



Amorebieta IV pilotalekuan egingo dute azoka.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak gazteei zuzendutako Formazio eta Enplegu Azoka antolatuko du, herriko gazteei aukera berriak sortzeko asmoagaz. Apirilaren 16an egingo dute, egunean, eta gazteak lan merkatuan integratzeko helburua du ekimenak. "Gure gazteei etorkizun akademikoa eta profesionala bideratzeko behar duten informazioa, baliabideak eta kontaktuak eskaintzea da gure helburua, baita enplegurako lehenengo urratsetan lagungarri izango zaizkien tres-

na praktikoak eskaintzea ere", adierazi du Ainhua Salterain alkateak. Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendurik dago ekimena, eta, besteak beste, enpresek zein profil profesional bilatzen duten azalduko diete, eta lan elkarrizketa bati zelan aurre egin. Horrez gainera, bertaratuko diren gazteek beste gazte batzuen ibilbide profesionalak lehen eskutik eza-gutzeko aukera izango dute. Udalaren esanetan, ikasleei "tresna erabilgarriak" eskaini gura dizkiete lan merkatuan

zein garapen akademiko eta profesionalean laguntzeko. Ekimenak harrera ona izatea eta "herrian tradizio baten hasiera markatzea" gura du udalak.

Zornotzako Udalak gazteentzat antolatzen dituen ekimenen barruan kokatu du azoka; "Gazte zornotzarren aldeko konpromiso sendo eta iraunkorra dugu. ZUOKen moduko proiektuek, azoka honegaz batera, erakusten dute gure helburua ez dela bakarrik gazteei erabakiak hartzen laguntzea; euren ahotsa ere entzun gura dugu, eta euren etorkizuna hemen, Zornotzan, erakitzeko aukera errealak eskaini gura dizkiegu", gaineratu du Ainhua Salterain alkateak. ZUOK ekimenagaz, 18tik 30 urtera arteko gazteei aukera eskaini gura diete proposamenak egin eta parte hartze aktiboa bultzatzeko.

Enpresentzako deialdia

Honegaz batera, udalak tokiko eta eskualdeko enpresei dei egin die ekitaldian parte hartzeko, gazteei zuzendutako lankidetzaren proposamenak aurkeztu ditzaten. Beraz, parte hartu gura duten enpresek martxoaren 6a baino lehenago eman behar dute izena.



Elorrioko kale bat.

Elorrio tentsiopeko eremu izendatzetik geroago eta hurbilago

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalak etxebizitzaren gaia aztertu eta Ekintza Plana prestatu du; martxoan osoko bilkurara eramango du, eta, onartuz gero, tentsiopeko eremu izendatzeko eskatuko dio Jaur-laritzari. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak iaz kaleraturiko txostenaren arabera, Elorriok tentsiopeko eremu lege izendatzeko beharrezko irizpede-tariko bat betetzen zuen, alokairuaren prezioaren igoera, hain zuzen ere; %19 baino gehiago igo da azken urteetan, udalaren esanetan. Izendapena jasotzeko, udalak beste dokumentu bi landu behar izan ditu, etxebizitzaren azterketa zehatza

eta datozen hiru urteetarako neurri zehatzak jasotzen dituen Ekintza Plana, hain zuzen ere. Elorrioko Udalaren esanetan, azterketak herriko etxebizitza parkea presiopean dagoela adierazten du. "Bai alokairu errentaren igoeran, bai salerosketa prezioaren igoeran, Elorrioko indizeek gutxieneko maila gaitzen dute", azaldu du Julene Lazkano Elorrioko alkateak ohar baten bitartez. "Etxebizitza etorkizun sozial eta ekonomikoa baldintzatzen duen ardatz estrategikoa da. Etxebizitza duina bermatzea funtsezkoa da udalerrri bizia, askotarikoa eta orekatua mantentzeko", nabarmendu du Lazkanok.

Greenpower zirkuitua martxoaren 7an, Zornotzan

A. M. ZORNOTZA

Haur eta gazteei zuzenduta dagoen ibilgailu elektriko Greenpower zirkuitua zapatuan helduko da Zornotzara. Gazteek zientziagazko eta teknologiazko duten interesa bultzatzea da ekimen honen helburua, eta aurtengo edizioan Lauaxeta ikastolako ikasleek parte hartuko dute. Aurretiaz zehaztutako ibilbide batean, bateria agortu barik kilometrorik gehien nork egingo duen lehiatuko dira; modurik eraginkorrenean eta jasangarrienean gidatzen duten taldeak izango dira irabazleak.



lazgo edizioiko irudi bat.

Berrizko pentsiodunek manifestaziora deitu dute

A. M. BERRIZ

Berrizko pentsiodunek mobilizazioak egiten jarraitzen dute. Astelehenean elkarretaratzea egin zuten anbulatorio parean, eta datorren astelehenerako, martxoak 9, beste horrenbeste egitera deitu dituzte herritarrek; 12:30ean izango da. Hori nahikoa ez, eta manifestaziora deitu dute martxoaren 13rako. 18:30ean irtengo da, udaletxetik, eta Olakueta plazaraino herriko kale nagusiak zeharkatuko dituzte Osakidetzari bere berba bete dezan eskatzeko. "Osakidetzari

konpromiso bat hartzea eskatzen diogu", esan dute.

Berrizko pentsiodunek, Durangaldeko beste hainbat herritarrek lege, urte bi baino gehiago daramatzate osasun publikoaren alde mobilizatzen. Berriz kasuan, hiru mediku egotea bermatzeko eskatzen diote Osakidetzari. "Batzuetan hiru mediku egoten dira, baina beti ez da bermatzen horrela izatea", salatu dute.



Aurreko mobilizazio bat.



GREMIOEN *gida.*

Iragarkia jarri nahi
baduzu, deitu
688 731 402 zen-
bakira

ZURGINTZA

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

ZURGINTZA

ATERPE ARLOTZAILERIA

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

ITURGINTZA

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



Hainbat tailer ume eta gazteei zuzendutakoak izango dira.

Askotariko ekimenez beteriko urtea izango da Hontza Museoan

J.D. MAÑARIA

Mañariko Hontza Museoak 2026an egingo dituen ekintzen egitaraua jakinarazi du asteon. Urte osoan zehar askotariko tailer, topaketa eta berbaldiak egingo dituzte bertan, biodibertsitatea, zientzia eta museoaren aberastasuna ezagutarazteko helburuagaz.

2026ko hainbat tailer umei eta gazteei zuzenduta dago, museo belaunaldi berrietara zabaltzeko. Horrela, Aste Santuko oporretan, inguruko biodibertsitatea ezagutzeko tailerra egingo dute haurrentzat. Udan, gazteei zuzendutako jarduerekin jarraituko dute, ingurumena ardatz hartuta. Azkenik, Gabo-

netako oporretan, sormen tailerra egingo dute 5etik 10 urtera arteko haurrentzat.

Berbaldi bi ere egingo dituzte, biak Durangon. Maiatzaren 21ean, Edorta Unamuno Mirandona biologo eta dibulgatzaileak hegazti migratzaileen inguruko berbaldia emango du. Museoen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimena da. Udazkenean, berriaz, biologian doktorea den Vega Asensio Herrero durangarrak ilustrazio zientifikoaren munduan sakonduko du.

Azkenik, maiatzaren 29tik 31ra Hontza Museoak 'Lurraren Zientzietako Entitateen IX. Topaketa Nazionala' hartuko duela iragarri dute.

Aurretiazko borondateei buruz arituko dira Mañarian

J.D. MAÑARIA

Datorren asteko egunean, 18:00etan, 'Aurretiazko borondateak' izeneko berbaldia egongo da Mañariko kultur etxean. Aurretiazko borondatea pertsona batek etorkizunean bere osasun-zaintzaren inguruko nahiak idatziz uzteko aukera ematen duen agiria da. Horrela, adituek aurretiazko borondateak zer diren azalduko dute hitzaldian, zelan eta nori zuzenduta dauden, eta zein balio duten pazienteen autonomiaren eta duintasunaren babeserako. Saioan galdera horiei eta beste hainbat zalantza praktikori erantzuna emango diete. Osakidetzak eta Mankomunitateko Adinekoen Zerbitzuak antolatu dute ekitaldia eta herritar guztiei zuzenduta dago, informazio praktikoa eta erabilgarria jasotzeko aukera izan dezaten.



Mañariko kultur etxea.



Fitoskins taldeak kontzertua emango du Gazte Egunaren barruan. IZARO GALLASTEGI

Mañarian Gazte Eguna antolatu dute apirilaren 11rako, lehenengoz

J.D. MAÑARIA

Mañarian Gazte Egunaren lehenengo aldia egingo dute apirilaren 11n, eta antolatzaileek asteon jakinarazi dute egitaraua. Txupinazoagaz emango diote hasiera ekimenari, 13:00etan. Trikitilariak arituko dira giroa berotzen. Ondoren, bertso bazkari baten bueltan batuko dira. 17:30ean gazte olinpiadak egingo dituzte, eta 19:00etan karropoteoan irtengo dira giroa herrian zehar zabaldua. Egunari amaiera emateko, 22:00etan, Estutu eta Fitoskins taldeek kontzertua joko dute. Erremate modura, Pancon Txitxarron DJak emanaldia egingo du.

Inauterietan sorturiko ideia

Mañariko gazteak dabilta ekimena antolatzen, hainbat eragileren laguntzagaz. Gazte Egunaren sortzeko ideia iazko inauterietako baba-janean sortu zela azaldu dute antolatzaileek. "Bazkariaren bueltan gazteok berbetan egon ginen eta herria bizirik mantentzeko zoezer egin behar zela komentatu genuen. Hori dela eta, Gazte Egunaren antolatzea ideia ona izan zitekeela pentsatu genuen. Harrezkero, lan horretan ibili gara, ideia zena errealitate bihurtzeko. Helburu nagusia denon artean ondo pasatzea da, eta herrian giroa sortzea", adierazi dute antolatzaileek.

Sabina Urraca idazleak Atxondoko irakurketa klubean parte hartuko du

J.D. ATXONDO

Atxondoko Irakurketa Klubak saio berezi bat egingo du datorren asteko eguazten arratsaldean. Sabina Urraca idazlea liburutegian izango da 17:00etatik 18:30era bitartean, eta berak idatzitako *El Celo* liburuari buruzko azalpenak emango ditu bertan. Mireia Delgadok gidatuko du saioa. Antolatzaileen esanetan, solasaldi zabala izango da eta interesa duen edonork parte hartu dezake, aurrez izeina emanda. Izen ematea liburutegian egin daiteke.

El celo liburuak 32 urteko emakume baten istorioa kontatzen du. Hartu-eman toxiko bat utzi ondoren, emakumea Madrilera

joango da eta txakur bat adoptatuko du. Txakurra otzal egongo da. Talde-terapia baten bitartez, protagonistak bere beldurrei, desira galduari eta askatasuna bilatzeko beharriaz buruz hausnartzen du.

Gizarte-kritika

Sabina Urraca kazetari eta idazleak narrazio laburrak eta eleberriak idatzi ditu batez ere. Bere lanetan umore beltza, lan autobiografikoa eta gizarte-kritika uztartzen ditu, emakumeen esperientziak eta bizitzako gatazkak azpimarratuta. Hainbat aldizkaritan eta egunkaritan ere kolaboratu izan du bere iritzia plazaratzeko.



Sabina Urraca.

El Celo liburuak arrakasta handia izan zuen argitaratu zenean, 2024an, eta dagoeneko sei edizio daramatza. Hedabide espezializatu batek baino gehiagok urteko libururik onenaren zerrendan sartu zuen.

Izurtzan sormen tailer bat hasi dute asteon, antzezlan bat egiteko

J.D. IZURTZA

Urtean zehar, Izurtzako Korrala Sormen Guneak hainbat tailer eta ikastaro antolatzen du antzerkigintzan sakontzeko, baina aste honetan hasi duena berezia da. Izan ere, ikasteko ez ezik parte hartzaileek sortzeko eta euren sormena jendaurrean erakusteko aukera izango dute.

Ikastaroko sorkuntzak maiztean Mañariko Kultur Astearen barruan egingo duten ARRI ikuskizuneko parte izatea da helburua. 2023an, ekimenak oso harrera ona izan zuen eta errepikatu egin gura dute. Orduan, Mañariko hainbat txoko ezohiko eszenatoki bihurtu zen eta

artistek ikuskizun laburrak egin zituzten bertaratutakoekin gozamenerako.

Klaseak astelehenero

Ikastaroa astelehen honetan izango da eta martxoan, apirilean eta maiatzan jarraituko du, astelehenero, 18:30etik 20:30era. Cecilia Pagagini aktore eta antzerkigilea izango da ikastaroko gidaria. Ikastaroak 100 euroko kostua du, eta, antolatzaileen esanetan, oraindino badago tokia. "Jolasteko, asmatzeko eta entseatzeko gunea da. Esperientzia izan zein ez, pertsona guztiek dute lekua sorkuntza kolektibo honetan", adierazi du Pagaginik ikastaroaren inguruan.

Jon Arrizabalagaren kemena eta borrokatzeko gogo zaldibartarren eredu

Neurofibromatosi gaixotasuna duen gaztea bizikletan etorri da Kataluniatik Zaldibarrera

Maialen Zuazubiskar ZALDIBAR

Indarra, kemena eta borrokatzeko gogo dira Jon Arrizabalagaren dohainetariko batzuk. Arrizabalagak 27 urte egin berri ditu. Neurofibromatosi gaixotasuna du, baina, hala ere, hori ez da oztopo izan berarentzat. Gaixotasunaren eraginez, tumore onberak irteten zaizkio buruan, eta bere funtzio-namenduan eragiten diote; bere ikusmena, entzumena eta oreka baldintzatzen dute. "Jaio zenetik du gaixotasuna, baina 18 urte zituenean eman ziguten diagnostikoa. Orduan egin zioten lehenengo ebakuntza, eta harrezkero hiru ebakuntza izan ditu. Orain nahiko egonkor dago", azaldu du Jonen aitak, Mikel Arrizabalagak.

Hala ere, gaixotasuna ez da ez muga ez oztopo Jonentzat, bera ez dago etxean geratzeko eta. Horren erakusle da bere azkenengo erronka. Astebetean, Jonen 670 kilometro egin ditu bizikletan gurasoekin batera. Arrizabalaga Unzueta oso familia kirolaria da, betidanik izan dira kirolzaleak, eta eurek mugarik izan ez arren, bidean topatutako trabei soluzioak bilatzen dizkiete. "Joni betidanik gustatu izan zaio bizikletan ibiltzea, baina orain, oreka arazoak tarteko, ezin da ondo ibili. Berari okurriratu zitzaion tandem elektrikoa erostea; fabrika ere berak aurkitu zuen eta berak prestatu zuen bidaia", argitu du Mikel Arrizabalagak.

Hirukotea Perafort herritik (Katalunia) Zaldibarrera bizikletan etorri zen: astebetean 670



Mikel Arrizabalaga, Jon Arrizabalaga eta Maite Unzueta.



Jon Arrizabalaga lagunekin batera.

kilometro egin zituzten. Joan zen barikuan heldu ziren etxera, eta helmugaratzea oso hunkigarria izan zen. "Esperientzia itzela izan da. Jonen bizikletak baino motor handiagoa dauka. Eta azelako ailegaera! Izugarria! Jonen mo-

mentua asko disfrutatu izana espero dut, ez du entzuten eta. Bestalde, eskerrak eman gura dizkiet Jonen lagunei. Onenak dira! Gure semearen alde egiten dutena itzela da", amaitu du Arrizabalaga aitak.

Eusko Jaurlaritzaren ikuskatze batek arriskuak identifikatu ditu abortegian

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Ikuskaritzak egoera kezagarria marraztu du Eitzagan. Abortegiak "utzikeria orokortua" duela ebazti du, eta mantentze-lanik egin ezean ingurumen arazoak errepikatu daitezkeela gaineratu. Arazo larrienerako bat libixbiatuen da, hondakinek eta euri-urek sorturiko likido kutsagarria.

Izan ere, ikuskaritzak egiaztatu du libixbiatuak ponpatzeko sistema ez dagoela martxan, eta material fluidoek Aixola errekan edo lurpean amaitzeko arriskua dagoela. Halaber, libixbiatu kopuru handiak identifikatu dituzte dreinatze sisteman, eta ohartarazi dute horiek hoditeria sistema trabatzera helduko balira "aurreikusi ezinezko ondorioak" eratorri li-

tezkeela: "libixbiatuak kontrolik barik isurtzea", batetik, eta horiek pilatzearen eraginez "egonkortasuna murriztea", bestetik.

Egoeraren ondorioz, Zaldibarko Udalak "urgentziatzeko bilera" eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Abortegiko egoerak herritarrei eta ingurumenari "neurrigabeko kalteak" eragin diezazkiekeela ikusita, udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio "abortegiaren egoera xeheki zehazteko, beharrezko azalpenak emateko eta egoera onbideratzeko zein pauso emango duen azaltzeko".

Zaldibarren jardunaldi sorta Bittor Garitaonandia omentzeko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Martxo honetan 150 urte bete dira Bittor Garitaonandia euskaltzale zaldibartarra jaio zenetik, eta Gerediaga Elkarte eta udala hari gorazarre egiteko ekitaldietan murgilduta dabilta egunotan. Jardunaldietako lehenengo ekitaldia egunean egin zuten, Garitaonandiaren biografiaren eta obraren erakusketari inauguratuta. Esposizioa liburutegi zaharrean atondu dute eta hilaren 14ra arte egongo da ikusgai. Halaber, erakusketarako bisita gidatuak antolatu dituzte. Martxoaren 7an eta 14an izango dira, biak 11:00etan. Interesdunek zaldibar@zaldibar.eus helbidean eman dezakete izena.

Ekitaldiek gaur eta bihar izango dute segida. Izan ere, gaur arratsaldean Garitaonandiaren omenezko ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte. Ekitaldia 18:30ean izango da, kaperan. Bihar, zapatua, Euskaltzaindiak eta Zaldibarko Udalak jendaurreko bilera zabala egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 12:00etan. Tartean izango da baita Joseba Sarrionandia ere. Idazle iurretarrak Zaldibarko literaturaz berba egingo du. Bestalde, martxoaren 14an, Donostiako Orfeoia kontzertua emango du Olazarko pilotalekuan, 19:30ean. Ekitaldirako sarrerak udal liburutegian eskuratu daitezke.

BESTE MUNDU BAT FEMINISTOTIK

MARTXOAK

Abadiño

Emakumeen Nazioarteko Eguna

BERDINTASUNA ESKUBIDEA DA. GUTXION ARDURA!

0km batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

MARTXOKO ZOZKETAK



Zornotza Aretoa

Antzerkia euskaraz
Kolapsoa (Jon Ander Urresti)
Martxoak 13



Arriola Dantza - Umeentzat

"Alai familiar"
(Lasala konpainia)
Martxoak 15



Arriola Antzerkia euskaraz

"Zerbait sartu zait begian"
(Imanol Epelde)
Martxoak 27



Zornotza Aretoa

Antzerkia euskaraz
R&J (La Dramática Errante)
Martxoak 27



BASA take away jatetxeak KMO haragidun eta ogi artisaudun hanburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



Xiberu tabernan
(Zornotza) gosari bikoitz bi.



24.korrika produktu sorta.

Anbotoren lekukoa zuena izango da
Eraman nahi duzu?

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



Oihana Azkorbebeitia, Abadiñoko Udaleko ordezkariak eta Ekopol taldeko kideak.

Etorkizuneko Atxarteri buruz iritzia ematera gonbidatu dituzte herritarrek

Aritz Maldonado ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Atxarteko harrobien paisaia berreskuratze-ko helburua duen 'Atxarte osatzen' plan berezia aurkeztu du aste honetan. "Atxarte Durangaldearen isla da: industria dago bertan, bizimodua ateratzeko baliagarria zena, eta, horrez gainera, eskaladaren ikur ere bada", azaldu du Nerea Zuluaga Ekopol EHuko Ikerketa taldeko kideak. Hain zuzen ere, Ekopolek egin du guneari buruzko azterketa. Ingurua lehengoratzeko eta eremuari bizi berri bat ematea da orain helburua, eta, horretarako, herritarren parte hartzea eskatu dute. Oihana Azkorbebeitia izan da iritzia eman duen abadiñarretariko bat,

eta horretara animatu ditu herrikideak: "Historia eta memoria duen lekua da Atxarte, eta denon parte hartzea garrantzitsua da eremua zelan babestu erabakitzeko. Denok pozik egoteko, denok parte hartu behar dugu". Martxotik uztaileara bitartean, ekitaldi sorta antolatu dute herritarrek iritzia emateko. Lehenengoa *Atxarte, iraganetik etorkizunera* dokumentalaren proiektzioa izango da, martxoaren 12an, 19:00etan, Errota kultur etxean. Saio zabalak eta ibilbide gidatuak iragarri dituzte. Uztailean, prozesuaren emaitzen aurkezpen ekitaldiak egingo dituzte. Aurkezpenean, www.atxarte.eus webgunea sortu dutela ere esan dute.

Osasun eta ingurumen babes-neurrien eskaera Mallabian

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko Udalak alegazioak aurkeztu dizkio 2030eko Energia Elektrikoaren Planari. Proposamenak azpiegitura elektrikoaren hedapena eta indartzea aurreikusten du eta horrek goi-tentsio-ko lineak ipintzea ere badakar. Udalak jakinarazi duenez, proiektuak eragina izango luke etxebizitzia eta herriguneeen inguruko eremuetan, eta kezka agertu dute. "Uste dugu posible dela herriko energia-garapenean aurrera egitea, herritarren bizi kalitatea eta ingurumenagazko errespetua sakrifikatu barik", adierazi du Igor Agirre Mallabiko alkateak. "Aurkezturiko alegazioek neurri babestuagoak hartzeko aukera ematen dute, azpiegitura elektrikoek inguruan bizi diren pertsonen bizitzan eragin zuzena dutelako", gehitu du alkateak.



Igor Agirre eta Aitor Ferreño.

Abadiñoko Udala auzoetako bizilagunekin hartu-emana indartzen

M.Z. ABADIÑO

Legegintzaldia hasi zenetik, Abadiñoko Udala auzoetako bizilagunekin duen hartu-emana eta komunikazioa indartzeko asmotan dabil. Eta hori bultzatu guran, auzo bilerak egiten hasi ziren. Dinamika horretan murgilduta, Abadiñoko Udaleko kideak auzo bilerak egiten dabilta egun hauetan, haien iritzia jaso eta orain arteko lanen jarraipena egiteko.

Eguaztenean Gerediagako auzotarrek egin zuten bilera, eta egunean Gaztelukoekin. Datorren martitzenean, martxoak 10, Mendiakoekin elkartuko dira, 18:30ean, Erreka-txon.

Mallabiko Udalak Basoen Nazioarteko Egunagaz bat egin du

M.Z. MALLABIA

Martxoaren 21ean, zapatua, Basoen Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta horren harira Mallabiko Udalak bat egingo du ekimenagaz. Hori horrela, bertakoa espeziea den haritz kanduduna (*Quercus robur*) banatuko dute herritarren artean. Mallabitarrak landare hauek eskatzeko aukera izango dute, euren lurretan landatzeko. Honek herriko espazio naturalak aberastea ekarriko du.

Ekimen hau Bizkaiko Foru Aldundiko Natura, Ondare eta Nekazaritza Sailak bultzatu du, tokiko biodibertsitatea zaindu eta ingurumenagazko konpromisoa indartzeko helburuagaz.

Garaiko duatloi probak zapore gazi-gozoa utzi du, antolatzaileen berbetan

Proba bikain joan arren, kirolari kopuruagaz penatuta daudela aitortu dute

Ekaitz Herrera GARAI

Joan zen zapatuan taldekako duatloi proba jokatu zen Garain, herriko triatloi taldeak antolatuta. Kirolariak eta kirolzaileek gozatu ederra hartu zuten, eta antolatzaileek zeukaten guztia eman zuten probaren arrakasta bermatzeko. Baina Gaizka Barrainkua antolakuntza taldeko kidearen berbetan, balantzea "ona eta txarra da aldi berean". Ona "teknikoki ez zelako arazorik egon, ez zelako istripurik egon, bidegurutze guztiak behar zen moduan zainduta egon zirelako eta ikusle asko joan zelako". Eta txarra proban "gura baino kirolari gutxiagok parte hartu zuelako". 60 izan dira aurten. "60, 100 zein 120 kirolarik parte hartu, guk berdin-berdin egin behar ditugu antolakuntza lanak, eta urtero izaten dugu sentipen bera,



Kirolariak Garain, joan zen zapatuan.

proba honek indarrik hartzen ez duen sentsazioa. Kirolariak dioskue proba ederra dela, herri ederra dugula, dena primeran dagoela, baina gero hori ez da islatzen parte hartzaile kopuruan. Badirudi zeozertan ez

dugula asmatzen", esan du Barrainkuak.

Seigarrenaren bila

Gorabeherak gorabehera, antolatzaileek datorren urteko proba dute buruan. "Ez dakigu zer egingo dugun, formatua aldatuko dugun, ohiko duatloi bat egingo dugun ala duatloi herrikoia egingo dugun". Edozelan ere, helduleku segurua dute eskura, boluntario sare fina izaten dutelako urtero, proba antolatzen laguntzen. "Herriarrak, elkarteak, jubilatuek, udala.. Herri osoa inplikatzeko da, eta horri eskerrak antolatzen dugu proba", txalotu du Barrainkuak herrikideen lana.

Badituzte osagaiak. Eta seguru horiek erregeta gustagarria egiten asmatuko dutela, Garaiko duatloiak beste hainbeste urte eta gehiago izan ditzan.

Euskara irakasten egindako 50 urteko bidea ospatuko dute Otxandion

A.B. OTXANDIO

Aurten 50 urte bete dira Otxandion euskara irakasten hasi zirenetik. Bada, *Inkernuz erain* lelopean ekitaldi berezia egingo dute datorren ekainean. Bertan, urteurrenagaz lotuta sortuko duten dokumentala ere aurkeztuko dute. Markel Onaindia kazetari iurretarrak zuzenduko du dokumentala eta ikus-entzunezko grabazioak martxoan egingo dituzte.

Udala, irakasle-ohiek osaturiko talde bat eta Mainondo herri eskola dabilta urteurreneko ospakizunerako dinamika antolatzen. Herriaren parte hartzea bultzatzea dute helburu, eta, horretarako, martxoaren 27an dinamikaren herri aurkezpena egingo dute. Urteurrena gogoratzeko, irudi bat ere sortu dute.

Andresa Landa ikastola

Andresa Landa ikastolak 1976an hasi zure bere ibilbidea, eskolaurrea eskainiz. "Geroago, modu naturalean, euskaraz ikasten

jarraitzeko aukera zabaltzen joan zen". Halaxe azaldu du Miren Campok, urteurrena ospatzeko sorturiko taldeko kideak. Bittor Kapanagak utzitako lokal batean izan zuen aterpe ikastolak. Mainondo herri eskolak 1982an hasi zuen bere bidea.



Ikastolaren aldeko jai bateko irudi bat.

Sukaldaritza tailerrak Garaiko Otea Loran elkarteak

E.H. GARAI

Trumoittek hiru sukaldaritza tailer antolatu ditu. Lehenengo jardunaldia martxoaren 12an egingo dute, Otea Loran elkarteak, 19:00etan, eta saio horretan askotariko errezetak egingo dituzte ardi esnea erabilita. Hurrengo saioak ekainaren 11n eta urriaren 8an izango dira. Jardunaldietan 5 euroan inskribatu daiteke.



Otea Loran elkarteak.

Eskola garaiak gogoan Oromiñon

A.B. IURRETA

Oromiñoko auzo eskolan ikasi duten iurretarrak bazkaltzeko elkartzen dira 2015etik, martxo-ko lehenengo domekan. 40 bat ikasle ohi hutsik egin barik batu dira aurten ere. Irakasle izandako Begoña Urresti ere bertaratu zen. Lourdes Totorikaguna ikasle ohiak esan du giro polita sortzen dela.





Gustoko
kalitatea eta jatorria

MARTXOAK 13-15



EROSI ZURE SARRERAK ONLINE

ESHBI
EUSKAL SARRERAK
EROSI ZURE SARRERAK
ONLINE

Bioh
BIOHAKO SARRERAK
EROSI ZURE SARRERAK
ONLINE

Bilbao

Bizkaia

hazi

BELC!
BILBAO EXHIBITION
CENTRE

Iurretako ikasle bi, Spainskills-en

Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko Joseba E. eta Julen A. ikasleek Madrilen jokatu diren SpainSkills jardunaldietan egon dira hiru egunez. Ikastetxeko iturriek esandakoaren arabera, "oso lan txukuna egin dute", eta irakasleek ere "oso egokitzat" jo dute euren lana. 550 gaztek parte hartu dute, 34 arlotan.



Juan Orobiogoitiako ordezkariatza.

POLITIKAN

Ingurumen Ordenantzaren erreforma: eraldaketarako tresna



PAULE SANCHEZ
EAJ-PNV

Martxoaren 8ak gizarte berdina-
go baterantz aurrera egiteko
beharra gogorarazten digu. Uda-
lean politika publikoek etorkizun
bidezkoago eta inklusiboago bat
lortzen nola lagundu dezaketen
hausnartu dugu, eta Ingurumen
Hobekuntzarako Ordenantzaren
erreforma aukera bikaina da
horretarako.

2007tik ordenantza honek erai-
kuntza jasangarria sustatu du
eta garai aldakorrak gizarte-er-
ronka berriei aurre egitea dakar.
Une honetan kontsulta publikoan
dagoen egokitzapenak, esaterako,
energia-eraginkortasuna eta isu-
riak hobetzeaz gain, etxebizitzaren
eta hiri-espazioen diseinuan
genero-ikuspegia sartzea indar-
tzen du.

Emakumeek, zaugarrienek
bereziki, pairatzen dituzte gehien
energia-pobreziaren eta etxebi-
zitza duinerako sarbide ezaren
ondorioak. Horregatik, etxebi-
zitza irisgarri, seguru eta pertsona
guztien beharretara egokituak
direla bermatzea dugu helburu.

EAJ/PNVtik, ingurumen-iraun-
kortasuna eta justizia sozialaren
alde egiten dugu. Erreforma hau
aukera aparta da genero berdina-
tasuna politika publikoetan, batez
ere gure espazioen diseinuan,
txertatzeko.

M8a ez da egun sinboliko hutsa;
bizitzako esparru guztietan ber-
dintasunaren aldeko, etengabeko,
konpromisoa da. Durangon,
hitzetatik ekintzetara jarraitzen
dugu, aukera berdintasunaren
aldeko bidea egunerokoa delako.

DURANGALDEA ASTEON

Argazki lehiaketako saria
Txintxirriko kideen eskuetan

ELORRIO ANBOTOn inauterietako argazki lehiaketa irabazi eta
gero, Elorrioko Txintxirri ikastolako kideek eskuetan dute
Euskotzararen elikagai sortagaz osaturiko otzara. Urtero, Silvia
Molero plastika irakaslearen irizpideari jarraituta mozorrotzen
dira, eta aurtien behintzat zorte ona eman die.



Saioa Gomez, saria eskuetan.

Liztor asiarraren aurkako
jardunaldiak antolatu dituzte

DURANGALDEA Durangaldea Urkiola Landa Garapenak eta Erlete
Elkarteak liztor asiarraren aurkako jardunaldiak antolatu dituzte
Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz. Martxoaren 10ean, 11n
eta 12an berbaldiak emango dituzte Iurretan, Durangon eta
Elorrioren, hurrenez hurren. Saio hezigarrietan erlezain eta teknikari
espezializatuek parte hartuko dute.



Erleteko eta Urkiola Landa Garapeneko ordezkariak.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefona /
Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta
ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak
ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta, Miren
Abasolo Txabarri.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK




Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



ITSAS ANIMALIEI JARRAITU

Bidea osatzeko, itsas animalien segida osatu



LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu



A circular collage of various pirate-themed icons. The icons are scattered across a light blue circular background. The items include: treasure chests (brown with blue straps), treasure maps (yellow with a red 'X' and a dashed line), wooden barrels (brown with blue bands), black bombs with yellow fuses, round compasses with red needles, crossed cutlasses (swords with white blades and black hilts), blue bottles with a white 'X' on a yellow label, blue telescopes, and small islands with palm trees and a pickaxe. The icons are arranged in a way that fills the circle, with some overlapping.



Aritz Maldonado ELORRIO

Lanean hamarkada bi baino gehiago daraman arren, Sugoi talde elorriarrak hasiberrien ilusioagaz jarraitzen du. Iazko urte amaieran *Reset* lana kale-ratu zuen, lehenengo lana hamabost urteren ondoren. Hamar ereserki metalzalek osatzen dute lana eta hainbat kolaborazio ere izan dute; besteak beste, Aitor Gorosabelek (Su Ta Gar) eta Pedro J. Mongek (Vhåldemar) parte hartu dute. Hainbat kontzertu iragarri dute; tartean, Abadiñoko Amaraunen apirilaren 17an emango dutena. Sugoi etxean aurkeztu zuen *Reset* lana, Elorrioko Ateneoan, hain zuzen ere, otsailaren 28an. ANBOTOk Joseba Flores abeslariagaz berba egin du kontzertu horren ondoren. Beragaz batera, Mikel Quesadak (gitarra), Mikel Uribek (baxua) eta Jandro Camuñasek (bateria) osatzen dute gaur egun Sugoi.

Zelan joan zen zapatuko aurkezpena?

Horrelakoetan ohikoa den urduritasuna sentitu genuen, baina jendearen erantzuna ikusita segituan ahaztu genuen. Bagenekien jende ugari joango zena, baina uste baino gehiago bertaratu zen. Eta oholta gainean, zer esan, oso gustura aritu ginen, oso ondo pasatu genuen eta behean ere horrela izan zela esango genuke.

Zelan hartu dituzte zaleek *Reset* diskoko abestiak?

Diskoa osorik jo genuen, ordena apur bat aldatuta, emanaldiari dinamismo gehiago ematearren. Zaharragoak diren abestiak ere jo genituen, gure ibilbideari jarraitzen dioten lagun eta zaleei begira. Kontuan izanda gure musika estiloa ez dela oso komertziala, orokorrean harrera ona izan dutela esango nuke. Zaleen aldetik ere feedback eta iritzi onak jaso ditugu. Bertsio bat ere jo genuen.

Ibilbide luzeko taldea zarete.

Sugoi 2003an sortu genuen. Ideia hori buruan bueltaka izan nuen eta "orain edo inoiz ez" pentsatu nuen. Mikelek gitarra jotzen zuen eta elkartzen hasi ginen. Hasieran bere anaia Txemak jotzen zuen bateria. Maketa bat grabatu genuen, *Ustezko gizakia*, eta 2010ean *Egia* lan luzea kaleratu genuen. Ordutik hona, lanean jarraitu dugu, baina gehiago kobazuloan sartuta. Bagenituen abesti berri batzuk, eta beste batzuk sortzen ibili



Mikel Uribe, Joseba Flores, Mikel Quesada eta Jandro Camuñas.

MUSIKA

"Oso exigentea izan da Vhåldemarreko Pedro J. Mongegaz grabatzea"

JOSEBA FLORES SUGOI

Hamabost urte joanda ere, Sugoi taldeak heavy metal doinuei eutsi die disko berrian; besteak beste, apirilaren 17an Abadiñoko Amaraun aretoan joko dute

gara; urte hauetan guztietan zapatuero geratu izan gara entseatzeko, baina zelanbait trabatuta geundela sentitzen genuen. Bakoitzak bere egunerokoan ere hainbat kontu izan dugu, normalean den moduan. Gero, Txemaren lesioa etorri zen eta Jandro agertu zen. Jandro ere elorriarra da, eta Vhåldemar taldean jotzen du; heavy metal doinuean puntako taldea da Vhåldemar, eta guri laguntzeko prest zegoela esan zigun. Hortik aurrera, txiri-txiri forma ematen joan gara abestiei. Gure denbora hartu dugu abestiak lantzeko, urte bi inguru.

"Batzuk ehizan edo bizikletan ibiltzera doaz. Gu zapatu goizero lokalera joaten gara"

"Bagenekien jendea etorriko zela Ateneora, baina uste baino gehiago bertaratu zen"

maren lesioa etorri zen eta Jandro agertu zen. Jandro ere elorriarra da, eta Vhåldemar taldean jotzen du; heavy metal doinuean puntako taldea da Vhåldemar, eta guri laguntzeko prest zegoela esan zigun. Hortik aurrera, txiri-txiri forma ematen joan gara abestiei. Gure denbora hartu dugu abestiak lantzeko, urte bi inguru.

Behin Jandro etorrita, abestiei forma ematen hasi ginen, eta bagenuen nahi bat, kolaborazio batzuk lotzeko, eta horri ekin genion. Beti izan dugu Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel buruan, eta, azkenean, eskatzeko pausoa ematera ausartu eta baiezkua jaso genuen. 2024 amaieran bateria doinuak grabatu genituen, Pedro J. Mongeren Chromaticity Studioan; Vhåldemarreko gitarrista da bera, eta Jandrok ezagutzen duenez, asko

erraztu dizkigu gauzak lanerako. Patxadaz lan egin dugu, ahal izan dugun moduan.

Ez da meritua makala hogeitau urte baino gehiagoan ia astero entseatzea.

Gure trukoa hobby legez hartzea izan dela esango nuke. Batzuk ehizan aritzera joaten dira, beste batzuk bizikletan ibiltzera. Gu zapatu goizero lokalera joateko geratzen gara, laurok ezin badugu ere. Modu lasaigoan hartzeak lagundu egin digu luzaroan irauteko. Azken batean, laurok lagunak gara, lokalean ondo pasatzen dugu, eta gero bakoitza bere bizitzara bueltatzen da.

Dena dela, hainbeste denbora joan eta gero material berria kaleratzeak ilusioa ere egin dizue.

Bai! Gainera, kontzertuak ere lotu ditugu, Portugaleten eta Abadiñon, adibidez. Pozarren

gaude, gure musika lokaletik ateratzea eta ezagutaraztea gura dugulako, azken finean. Gure pentsamenduetan ez dago dirua edo ospea lortzea (barrez). Ate-neoko ikusleen artean ez zegoen gaztetxo askorik; guk geuk 45 urtetik gora ditugu, baina metal zaletasuna barruan bizirik dugu oraindino. Dena dela, badirudi metal doinuen suspertze orokor bat dagoela. Su Ta Gar beti egon da hor, baina, adibidez, Latzen berriro bueltatu da agertokietara, eta bada zerbait.

Diskora bueltatuta, *Reset*. Jandroren sarreragaz lotura du?

Buelta mordoa eman genion ea diskoari zelan deitu. Diskoak ez dira zertan abesti baten izenagaz deitu, baina *Reset* deitzeak zentzua zuela ikusi genuen. Alde batetik, gizarte legez, txotxolotuta gabiltzala iruditzen zaigu, eta, zelanbait esateko, berriro hasteko botoiari sakatzea me-rezi du. Zalantza asko izan dugu bi-hiru abestiren artean. Bestalde, izenak gure susperraldi edo berpizteagaz ere badu zerikusia. *Reset* sakatu eta gu ere martxan ipini gara berriro.

Soinu aldetik, gaur egungo produktzioa duzue.

Gure gustuak ez dira asko aldatu urteotan, antzeko taldeak edo metala entzuten jarraitzen dugu, baina garapen bat izan dugu musikari legez. Beraz, Sugoi izaten jarraitzen dugu, baina bertsio berrituago bat, zelanbait esateko, Sugoi 2.0 moduko bat. Melodia eta konposizio aldetik, abesti berriak freskoagoak dira, dinamikoagoak, baina oraindino igartzen da Sugoiarenak direla. Bestalde, Pedro J. Mongeren eskua ere aipatu beharra dago. Beragaz grabatzea oso exigentea izan da, eta geure buruagaz ere modu exigentean jokatu dugu. Aurreko lanak autoekoitziak izan dira, baina disko hau grabatzeko beste pertsona batek lagundu egin gura genuen. Gure erabakiak errespetatu ditu, baina oso ekarpen baliotsuak ere egin dizkigu. Guretzat ikaragarria izan da beragaz lan egitea; zortea izan dugu Jandroren taldekidea delako, eta horrek asko erraztu du lan hori.

Hitzak zuk idazten dituzu?

Bai. Abestiak sortzerakoan, ez dago gai zehatz bat, batzuetan berbak musikariek barik ere idazten ditut, eta gero moldatu. Inspiratzeko, egunerokotik jotzen dut, onerako zein txarrerako.

ANTZERKIA

'Andereño' eta 'Welcome & sorry', MAX sarietarako hautagaien artean

Anita Maravillasen lanak sei hautagaitza jaso ditu, eta Ganso & Ciarenak bat

A. M. ZORNOTZA

Beste urte batez, Durangaldeko antzerkigintzak ordezkari izango du MAX sari entzutetsuetan. Hain zuzen ere, Anita Maravillas eta Ganso & Cia konpainiek hautagaitza errepikatuko dute, iaz aurreaukeraketan egon eta gero. Oraingoan, Anita Maravillas konpainia zornotzarraren *Andereño* lanak sei hautagaitza jaso ditu; Portal 71gaz batera ekoiztako lanak atal teknikoetarako eta artistikoetarako hautagaitzak jaso ditu: haur, gazte eta familia-erentzako ikuskizunik onenaren sarirako, ekoizpen pribatuko diseinurik onenaren sarirako, eszena zuzendaritzarik onenaren sarirako (Ivan Alonso), espazio eszenikoaren diseinurik onenaren sarirako (Calvito&Tupe), musika konposiziorik onenaren sarirako (Fran Lasuen) eta argiztapenik onenaren sarirako (Ion Chavez). "Guretzat harro egoteko modukoa da haurrei eta familiei zuzenduriko ikuskizun batez gain, hainbat kategoriatan teknikotik, zuzendaritzaren eszenikotik eta ekoizpenetik hautagai izatea", azaldu dute Anita Maravillas konpainiak kideek ohar baten bitartez.



Miren Larrea 'Andereño'-n.

Anita Maravillasek hogeitertetik gora daramatza martxan, betiere txotxongiloen antzerkigintzan. Valentina Raposo txiletarrak eta Miren Larrea zornotzarrak sortu zuten, eta prestakuntza eta ikerketa lan sakona egin dute urteotan; sei ikuskizun aurkeztu dituzte urteotan, eta Zornotzagaz hartu-eman estua izan dute hasieratik.

Kaleko ikuskizunik onena

Ganso & Cia konpainiak berri-

ro jaso du hautagaitza MAX sarietan, orain *Welcome & sorry* ikuskizunagaz. Hain zuzen ere, kale ikuskizunik onenaren hautagaien artean dago, arte eszenikoaren Espainiako saririk garrantzitsuenen sariketan. Gorka Gansok eta Cecilia Paganinik gidatzen duten antzerki proiektua da Ganso & Cia.

Bestalde, datorren apirilaren 3an Durangon egingo den Tontolapiko egunaren antolakuntzan murgildurik dago orain konpainia.



Jaizaleko kideak eta udal ordezkariak.

MUSIKA

Hiruzulo jaialdiaren IV. edizioa, Haatik eta Arineketan taldeekin

A. M. DURANGO

Hiruzulo jaialdiaren IV. edizioa egingo dute zapatuan, martxoak 7, Durangoko San Agustín kulturenean. "Txistua instrumentu unibertsala da; hori dela eta, bestelako formula batzuk erakusten ahalegintzen gabilta eta Hiruzulo folk jaialdia horren adibideetarik bat da", azaldu du Xabier Etxeita Jaizaleko kideak. Horrela, zapatuko emanaldian Arineketan taldea izango da talde gonbidatua, eta Haatik dantza taldeagaz batera *Zaharrrak berri* proiektua aurkeztuko dute. Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaran dira Arineketan taldeko buruak, eta, 2020an lehenengo diskoa kaleratu zutenetik, plaza ugari-

tara eramane dute euskal musika tradizionalaren berrikuntzan oinarritutako proposamena.

Horrez gainera, Etxeita nabarmendu du Jaizalek harrobia lantzeko apostuagaz jarraitzen duela. "Txistua gaur egungo mundura egokitzen dabil, eta Jaizale ere bai beragaz batera. Eta hori, Bartolome Ertzilla musika eskolagaz batera egiten gabiltzan lanari eskerrak ere bada", gehitu du.

Kontzertua Abadiñon

Bestalde, martxoaren 15ean Durangaldeko 70. Txistulari Eguna ospatuko dute Abadiñon. Kontzertu berezia emango dute eta dozenaka musikariek parte hartuko dutela iragarri dute.

GAI LIBREAN



IGOR GALARZA INTXAUSTI
KAZETARIA

Gaur da

Gaur martxoaren 7a da, baina zu agian 6an zabilta hau irakurtzen. Agian martxoaren 14a da, apirilaren 5a edo auskalo zein hileko zein egun. Niretzat, esaterako, gaur, testua idazten ari naizen eguna, otsailaren 25a da. Telebistan amak jarritako telesail bat dago martxan; amak aspaldi hartu du lo, ordea. Pantailen magia hori ote: arreta osoa edo arretarik eza sortzen dute.

Alde batetik telefonoetako pantailak daude, bizitzako momentu gehiegitan arreta galarazten diguten pantailak. Tira, gure amaren kasuan telefonoaren aurrean ere lo geratzen da sarri. Izan bideo absurduak ikusten, edota moralaren, etikaren eta zenbaitetan legaltasunaren marra gainditzen duten edukiak kontsumitzen. Martxoaren 7an, baina 1876. urtean, Graham Bellek telefonoa patentatu zuen. Zenbat zaildu dizkigun gauzak harrezkero, gauzak erraztu behar lizkigukeen horrek. Pantaila txikiko eduki batzuen inguruan zelatari jartzen garen

arren, gai honetan behintzat tamainak ez du axola: Goya eta Oscar sarien asteotan zelan ahaztu pantaila handietan ikus ditzakegunak. *Maspalomas*, *Wuthering Heights* eta beste ugari, gizarteko gai desberdinak zinema aretoetara eta nazioarteko zinemaldirik handienetara eramaten dituzte. Aurrekontu handiko filmak dira, gainera. Zuzendari belaunaldi berriko edo aurrekontu txikiko lanetatik datozenak dira sarri lan horien atzean daudenak, garai batean egiten zen zinema mota atzean

**"Berdin dio domeka
bada gaur, martitzena
edo eguna. Egunero da
justizia egiteko eguna"**

utzirik. Bide batez, martxoaren 7an, baina 1999an, hil zen historiako zuzendari ezagunenetarik bat: Stanley Kubrick. Urteak igaro ahala, bere lanak goraiatzeko jarraitu du pantaila handiaren munduak. Baina bere itzalak ere agertzen joan dira, zorionez. Shelley Duvall aktoreak *The Shining* filmean jasan zuen tortura argitaratu irten zen orain dela urte gutxi. Tortura hark gaixotasun mentala eragin zion, zeinatik ez zen sekula sendatu. Eta ez diogu geure buruari galdetu ere egiten berdina egingo ote lukeen gizon batekin, ondo baitakigu horren erantzuna. Zorionez, garaiotan itzal horiek argitaratu iritien hasiak dira, aktore emakumeak beldurra galtzen hasi zirelako: Angelina Jolie, Salma Hayek, Gwyneth Paltrow, eta Harvey Weinsteinek eraso egin zien guztiei. Horregatik, berdin dio domeka bada gaur, martitzena edo eguna. Egunero da justizia egiteko eguna.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 6

- **BERRIZ 'Hariak, jostorratzak eta zauriak'** Helduentzako ipuina (Mireia Delgado), 18:00etan Berrizko Kultur Etxean.
- **DURANGO 'Piranesi. Erroma amestu'** Giovanni Battista Piranesi artista italiarraren hainbat lanen erakusketa. Arte eta Historia museoan, apirilaren 26ra arte.
- **DURANGO 'Reencuentro'** Esther Juradoren lanak. Ezkurdi Aretoan, martxoaren 15era arte.
- **DURANGO 'Auzoen diseinua, biztanleen osasunean faktore erabakiorra'** Fisiologian doktorea eta EHU'n irakaslea den Leyre Gravina Alfonsoren berbaldia, 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.
- **IURRETA 'Bizi, bizi zirkua'** Kiki eta Koko pailazoak, 18:00etan lbarretxe kultur etxean.
- **MALLABIA M8** Emakumeen osasun eskolak, 19:00etan, Kontzejuzarrean.
- **OTXANDIO M8** Batukada kalejira, 10:30ean. Manifestuaren irakurketa, 11:00etan, udaletxeko balkoitik.
- **ZALDIBAR 'Yung Urkiolamendi'** Jone Ertzillaren lanak. Xerra espazioan, maiatzaren 31ra bitartean.
- **ZALDIBAR Luntxa eta poteo girotua** Gaztetxearen 22. urteurrena. Gaztetxean, 19:30ean.
- **ZORNOTZA M8** 'Karmele Jaio: Emakumeak eta literatura'. (Hizlaria: Karmele Jaio) Josune Muñozek aurkeztutako berbaldia, 18:30ean, Zelaieta zentroko auditoriumean. Eskulan bereziak txandaka Ludotekan (17:00-20:00) .
- **ZORNOTZA 'Nancy Grace Roman'** Nexo Teatroren antzezlanea. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

- **ZORNOTZA 'Emakume irakurleak'** Erakusketa, Zelaieta Zentroan. Martxoaren 27ra bitartean.

ZAPATUA 7

- **BERRIZ 'La reina del Arga'** Estefanía de Paz Asín aktorearen sorkuntza. Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.
- **DURANGO Hiruzulo Folk Jaialdia** Arineketan taldeak eta Haatik dantza taldeak 'Zaharrak berri' ikuskizuna egingo dute. Jaizale txistulari elkarteak antolatuta. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **DURANGO M8** Bideokliparen grabazio murgiltzailea. 18:30ean, Plateruenean.
- **ELORRIO M8** Emakumeentzako mendi martxa, 08:30ean, plazatik. Urkiolan bazkaria. Pintxada feminista, 22:30ean, Ateneoan.
- **ELORRIO Aka Dantz** Hiri-dantzen erakustaldi eta lehiaketa, 16:00etan eta 18:30ean, Arriola antzokian.
- **IURRETA M8** Bazkaltzera joateko autobusa, 14:00etan, Maspen. Ondoren, DJa.
- **MAÑARIA M8** Poteoa trikitilariekin, 12:30ean, plazan hasita. Bazkaria, 14:00etan, Kultur Etxean. Ondoren, bingoa. Karropoteoa, 18:30ean.
- **ZALDIBAR Bazkaria** Gaztetxearen 22. urteurrena ospatzeko. Bazkalostea girotuta egongo da. Gaztetxean, 15:00etan.
- **ZALDIBAR DJ Pakigaz poteoa** Gaztetxearen 22. urteurrena ospatzeko. Gaztetxetik, 18:00etan.
- **ZALDIBAR Ganibet + Xaukena Xauk + Totozer Mj.** Gaztetxeak 22. urteurrena ospatzeko kontzertua. Gaztetxean, 22:00etan.
- **ZORNOTZA M8** Amorebieta-Etxano Greenpower herri zirkuitua (15:00-19:00), Zelaieta



ZEKER

BERRIZ Añube talde gipuzkoarrak eta Elorrioren sorturiko Zeker taldeak kontzertua emango dute Berrizen. Azken sarrerak egunean bertan salduko dituzte, gaztetxean bertan. Hilteigie gaztetxean, martxoaren 6an, 22:00etan.

parkean. Gau Morea: Berdintasun ihes gela, Tote Bag, Hama brotxeak, txapak (20:00-22:30). Zelaietan.

DOMEKA 8

- **ABADIÑO Azoka** Hileko 2. domekako tokiko ekoizleen eta artisauen azoka. Txanportan (10:30-14:30).
- **ABADIÑO Xake txapelketa** Probalekuan, 09:30ean.
- **ABADIÑO M8** Elkarretaratzea, 12:00etan, Txanporta plazan. Sököle afrikar perkusio taldea 12:30ean, eta poteo musikatua 13:30ean. Bazkaria 14:30ean, Gaztañodi elkartearen. Abadiñoko Talde Feministak antolatuta.
- **ATXONDO M8** Plaza ingurua apaintzea, 11:30ean; eta 12:30ean elkarretaratzea. Piskolabisa 13:00etan.
- **BERRIZ M8** Mobilizazioak 09:00etan, Olakueta plazan.
- **DURANGO 'Kimu'** Mari de Jongh Teatroren antzelana. San Agustin kulturgunean, 18:00etan.
- **DURANGO M8** Manifestazioa *Beste mundu bat* *feminismotik* lelopean, Durangoko Mugimendu Feministak deituta, 12:30ean, Ezkurdiko plazan.
- **ELORRIO M8** Manifestazioa, 13:00etan, plazatik. Mokaua, 13:30ean.

- **IURRETA M8** Manifestazioa eta irakurketa, 12:00etan, Askondotik. Bazkari autogestionatua, 14:00etan, karpan. Gero, Maite Lopezen bakarriketa. Luntxa, 18:00etan, Nagusien zentroan.
- **MALLABIA M8** Elkarretaratzea eta adierazpen instituzionalaren irakurketa, 12:15ean, Kontzejuzarrean. 'In Crescendo' clown ikuskizuna, 12:30ean.
- **MAÑARIA M8** Enkartzelada, 13:00etan, plazan.
- **OTXANDIO M8** Emakume ekoizle eta sortzaileen azoka (11:00-14:30), plazan. Elkarretaratzea 13:00etan. Ondoren, Pentsiodun emakumei aitortza ekitaldia. 'Klimaterioa' (bakarriketa eta bertsoak), Kaitin Allende, Irati Anda eta Iratxe Ibarrenaren eskutik, 18:00etan.
- **ZALDIBAR M8** Mobilizazioa, 13:00etan, udaletxeko plazan. Dominika talde feministak antolatuta, Santamañezarrera igoera, 09:30ean, udaletxeko plazatik. Argazkia eta topa, 11:00etan, tontorrean.
- **ZORNOTZA M8 XXVIII.** Emakume artisauek eta nekazarien azoka (10:00-15:00), Zubiondo parkean. Tartean, 13:00etan, Marixelarre sariak, Dizdira ahots taldeak girotuta. Elkarretaratzea eta adierazpen instituzionala, 12:00etan, Herriko plazan. 'Begirada

morea' photocall-a, (17:00-20:00), Gaztetxokoan.

ASTELEHENA 9

- **DURANGO Errezitaldia** Aita Donostia omenduko dute, haren jaiotzaren 140. urteurrenean eta heriotzaren 70. urteurrenean. Josu Okiñena pianista eta Alexandre Da Costa nazioarteko biolinista batuko dituen saioa 19:00etan hasiko da, San Agustin kulturgunean.
- **IURRETA M8** 'Memoria bizia, memoria kolektiboa', 18:00etan, kultur etxean.

MARTITZENA 10

- **IURRETA 'Hezurak indartzeko ariketa fisikoa'** Jon Irasuzta Astiazaran, EHUko Fisiologian katedradunaren berbaldia, 18:30ean, herri liburutegian.

EGUENA 12

- **DURANGO M8** 'Izena duena bada' bertso saioa, Ane Labaka, Alaia Martin eta Miren Amurizagaz, 18:30ean, Arte eta Historia Museoan. Gai-jartzailea: Erika Lagoma.
- **ZORNOTZA Kamikaze Elmetz** Kontzertua, 20:00etan, Zelaieta Zentroan.

ZINEMA

ABADIÑO

ERROTA KULTUR ETXEAN

Atxarte osatzen
Eguena 12: 19:00.

BERRIZ

KULTUR ETXEA

La chica zurda
Domeka 8: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

La novia

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 18:00, 20:30.
Domeka 8: 17:00, 19:30.
Astelarena 9: 17:45, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.
Eguaztena 11: 19:00.

El último vikingo

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 19:00, 21:30.
Domeka 8: 19:30.
Astelarena 9: 18:00, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.

Línea de extinción

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 19:00, 21:30.
Domeka 8: 19:30.
Astelarena 9: 18:00, 20:15.
Martitzena 10: 18:00, 20:15.

Ninja a cuadros. El origen

Zapatua 7: 17:00.
Domeka 8: 17:00.
Chirp. El investigador de Honey Hills
Zapatua 7: 17:00.
Domeka 8: 17:00.

Pecadores

Eguaztena 11: 19:00
Queen. Rock Montreal
Eguaztena 11: 18:00, 20:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Si pudiera te daría una patada

Zapatua 7: 20:00.
Domeka 8: 20:00.
Astelarena 9: 20:00.
Bob Esponja, una aventura pirata
Domeka 8: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Cumbres borrascosas

Domeka 8: 20:00
Astelarena 9: 20:15.
Extinción
Domeka 8: 17:00.
Los Tortuga
Martitzena 10: 19:00.

ESKUBALOIA

"Probatuz gero, eskubaloiak harrapatu egiten zaitu"

ARIANE BIKANDI ARRAZOLA IBAIZABAL ESKUBALOI TALDEKO JOKALARIA

Bederatzi urtegaz probatu zuenetik, Ariane Bikandi durangarra eskubaloian dabil. Kirol konpletoa eta desberdina dela uste du



Oraintsu bueltatu da kantxara, hiru hilabeteko lesio batetik.

Joseba Derteano DURANGO

Futbola, saskibaloia eta errugbia erreferentziazko kirolak diren herrian, badago isilean eta etengabeko lanari eskerrak apurka hazten dabilen beste talde bat ere: Ibaizabal eskubaloia. Emakumeen proiektuari eskerrak sortu zen kluba, eta gaur egun harrobia indartzen eta kirola ikastetxeetara zabaltzen jarraitzen du. Ariane Bikandi Arrazola (Durango, 2004) emakumeen talde nagusiko jokalaria da.

Eskubaloia ez da kirolik ezagunena inguruotan, baina, hala ere, urterik urtera hazten zabilazate. Zelan lortzen da hori?

Lan handiaren emaitza da. Nesketan hiru talde ditugu: senior mailakoa, gazteena eta kadeteena. Mutiletan kadeteen taldea dugu. Jesuitak ikastetxean haur kategoriako eta kimu mailako

taldeak ditugu. Pozik gaude. Futbola, saskibaloia eta errugbia Durangon kirol ezagunak diren moduan, eskubaloia ez da asko ikusten hemen. Ez da Bilbo inguruan legez. Han jokalaria eta talde dezente dagoenez, kalean ikusten den kirola da. Hemen, ikastetxeetara joaten gara kirola ezagutaraztera. Lanketa bat egiten dugu eskubaloia umeengana heldu dadin. Eskualdean eskubaloiko talde bi baino ez daude; Durangoko Ibaizabalez gainera, Elorrioren beste bat dago. Elkar ezagutzen dugu eta denboraldiaurrean lagunarteko partidua bat jokatu genuen Durangon. Hartu-emanak sendotzeko balio digu.

Gainera, zuen kasuan garrantzitsua da nabarmentzea lehenengo emakumeen taldea sortu zela, eta ondoren heldu zela mutilena. Normalean alderantziz gertatzen da.



Ibaizabal eskubaloia klubeko emakumeen talde nagusia. IBAIZABAL

Harro gaude eta jende askoren lanagaitik izan da posible. Urte askoan jende askok egin duen lanagaitik da Ibaizabal gaur egun dena, eta hori azpimarratu gura nuke.

Zelan hasi zinen eskubaloian eta zerk erakarri zintuen?

Umetan, Jesuitetan nenbilela, saskibaloia zen gehien ikusten nuen kirola. Bederatzi urtegaz eskubaloia probatzeko aukera izan nuen eta hasieratik asko erakarri ninduen. Kirol arina da, indarra eta teknika ere behar da... Oso kirol konpletoa eta desberdina dela uste dut.

Hegalean jokatzen duzu. Zeintzuk dohain behar ditu postu horretako jokalariek?

Dohain bereziak eskatzen dituen postua da. Bazterretik leku gutxi dugu gola sartzeko. Beraz, hegaleko jokalariek oso salto indartsua izan behar du. Baita erabakiak oso denbora gutxian hartzeko gaitasuna ere. Askok entrenatuta lortzen den dohaina da. Apur bat instintiboa ere bada.

Zelako taldea zarete?

Garaieran ligako talderik txikienetarikoa gara. Horri aurre egiteko, azken urteetan joko azkarren aldeko apustua egiten gabilta. Horixe da ondoen funtzionatu digun jokamoldea. Handiak eta astunak diren taldeen kontra, korrika egiten ahalegintzen gara, betiere burua erabilia; hau da, jokoari abiadura noiz eman eta noiz estatikoan jokatu jakinda.

Zertan aldatu da emakumeen eskubaloia zu hasi zinenetik hona?

Ni hasi nintzenean, nire adineko oso neska gutxi zebilen eskubaloian. Orain neska gehiago dabil, ligako talde kopuruari begiratzea besterik ez dago. Kadeteetan 27 talde daude multzo bitan banatuta. Talde asko dira, ni hasi nintzenean baino askoz gehiago. Kostatzen den arren, apurka tokia egiten gabiltzala esango nuke.

Bizkaiko ligan, hamasei jardunaldi joan direnean, sailkapenaren erditik behera zabilazate. Zeintzuk ziren denboraldi hasierako helburuak?

Denboraldia espero baino askoz okerrago doa. Lesio asko izan dugu, nik neuk tarteko. Oraintsu arte hamar jokalaria bakarrik izan gara eta hori eragozpen handia da. Partidu onak joko-

tu ditugu, gorputza mugaraino eramanda, baina azken minutuetan asko nabaritu dugu jokalaria falta. Orain jokalaria berri bi batu dira taldera, eta lesionatuta egon garenok ere apurka bueltatzen gabilta. Aldea igarriko dugula uste dut, onerako.

Lesionatuta egon zarela esan duzu. Zelan zaude?

Jokalaria bat belaun gainera jausi zitzaidan eta belauneko barneko albo-lotailua bihurritu nuen. Hilabetez guztiz geldirik egon nintzen eta beste hilabete bat errehabilitazioan. Hiru bat hilabete eman ditut kantxetatik kanpora eta oraintsu bueltatu naiz. Belaun berean hainbat lesio izan dut eta apurka eritimoa eta konfiantza hartzen nabil.

Harrobiko entrenatzailea ere bazara. Gustuko duzun jarduera da?

Aurten kadeteak entrenatzen nabil, oso pozik. Irakatsi ez ezik ikasi egiten dut. Entrenatzaile aritzeak eskubaloia beste modu batera ikusteko aukera eskaintzen dit. Beste perspektiba bat da, eta nik nire jokoan aplikatzeko baliagarria.

Zeintzuk erronka ditu Ibaizabalek epe ertainera begira?

Lanean jarraitu behar dugu, kirola ezagutarazteko. Probatuz gero, eskubaloiak harrapatu egiten zaitu. Horregaitik, kuriositatea duten denak kirol hau probatzera gonbidatzen ditut.

"Azken urteetan joko azkarraren alde egin dugu. Horixe da ondoen funtzionatu digun jokamoldea"

"Aurten kadeteak entrenatzen nabil, oso pozik. Irakatsi ez ezik ikasi egiten dut"



Asteleneko jardunaldiko irudi bat. ERAMAN

ZESTA-PUNTA

Finalerdiak erabakita daude Durangoko Winter Series txapelketan

J.D. DURANGO
Astelenean Euskotren Winter Series txapelketako final -laurdenak jokatu zituzten. Lehenengo partiduan Ihart Arakistainek eta Maia Goikoetxeak hiru set behar izan zituzten Maite Ortiz de Mendibil eta Oaia Otaño mendeant hartzeko. Lehenengo seta galdu eta gero, ondorengo biak irabazi zituzten norgehiagoka orekatu batean: 15-13, 13-15, 4-5.
Bigarren partiduan Erika Murgartegi eta Frida Watkins set bitan nagusitu ziren Lur Lejardiren eta Maialen Aldazabalen aurka: 15-14, 15-10. Lehenengo setean pare-parean aritu ziren, baina bigarrenean argiago agin-

du zuten pilotoan, eta hortik etorri zen garaipena.
Txapelketako finalerdiak honela geratzen dira: martxoaren 9an, 19:00etan, Elaia Gogenolak eta Eneritz Lizardik Erika Murgartegiren eta Frida Watkinsen aurka jokatuko dute. Gizonen txapelketan honako hau da finalerdia: Erkiaga-Atain / Larduche-Manci.
Bestalde, martxoaren 16an Helena Barrenetxea eta Arai Lejardi Ihart Arakistainen eta Maia Goikoetxearen aurka ari-tuko dira. Gizonetan Olharan-Zabala eta Urreisti-Lekerika bi-koteek neurtuko dituzte indarrak, martxoaren 23ko finalera sailkatzeko.

JOKALDIA



OIHANA AZKORBEBEITIA
MENDI LASTERKETAK

261 dortsalaren lorratza

1967ko apirilaren 19a zen. Eguna hotz eta haizetsu zabaldu zuen. Kathrine Switzer Bostoneko maratoiko irteera lerroan zegoen, urduri, 42 km korrika egiteko prest, 261 dortsala kateorratzekin paparrean lotuta. Milaka korrikalari zituen inguruan, denak gizezkoak.
Lehenengo kilometroak lasaiak izan ziren. Korrikalari batzuek harriduraz begiratzen zioten, beste batzuek sinpatiaz. Legez ezin zen maratoian lehiatu, emakumea zelako. Emakumeek debekatuta zuten halako probetan parte hartzea. Emakumearen gorputza makala ei zen, ez ei zegoen prestatuta muturreko esfortzuetarako. Gizonezkoak baino ez ziren lehiatzen, eta emakumeak begira egon behar! Aurreiritziz beteriko arau matxisten kontuak, jakina. Inskripzio orrian K.V. Switzer idatzi zuen, ohiko zuen moduan, eta inor ere ez zen konturatu emakume batek izena eman zuela proban.

Seigarren kilometroan hasi zen zalaparta. Gizonezko bat —lasterketako zuzendarietarikoa bat— haserre bizian jaitsi zen antolakuntzaren autobus batetik, Kathrineri "kanpora nire lasterketatik, ekarri zenbaki hori!" oihuka. Zenbakia kentzen ere ahalegindu zen baina ez zuen lortu, korrikalari batek, Katherineren bikoteki-deak, bultzakada eman ziolako. Kathrinek korrika jarraitu zuen, begiak malkotan eta beldurra gorputz osoa hartuta, baina barruan sua piztu zitzaion. Gainerako kilometroak ez zituen berarengatik egin, "ezin duzu" entzun behar izan zuten emakume guztiengatik baino. Bere urrats bakoitza erronka bat zen, kilometro bakoitza erresistentzia ekitza bat, eta ibilbide guztian zama itzela sentitu zuen, emakumeak mendeetan sufritu izandako diskriminazioaren zama. Leher eginda gurutzatu zuen helmugako marra, baina garaile. Ez

zuen dominarik irabazi, baina bai lekutxo bat historian emakumearen eskubideen alde (kirolean, kasu honetan) borrokatzeagatik. Maratoi batean legalki (dortsalarekin) parte hartu zuen lehenengo emakumea izan zen.
Agintariak deskalkifikatu egin zuten eta arauak zorroztu zituzten berriro halakorik gerta ez zedin, baina kukuak oker jo zien. Kathrineren balentria mundu osoan zabaldu zen eta harrezkero milioika emakumeak jantzi ditugu zapatilak libre egiteko korrika. Korrika egitea ez delako bakarrik ariketa egitea. Libertatea ere bada, indarra, erresistentzia eta borroka. Kathrinek bidea zabaldu zigun emakume korrikalariei, eta jarrai diezaiozun askatasunaren bide horri, gogoratuta Lila-krosean, Emakumearen Lasterketan zein zapatilak jantzen ditugun bakoitzean 261 dortsala eraman zuen emakumearen lorratzari jarraitzen diogula.

FUTBOLA
Amorebietak azken-aurreko sailkatua bisitatuko du

J.D. ZORNOTZA
SD Amorebieta emaitza bolada onak kateatu ezinik dabil denboraldi honetan. Horren adibide dira azken jardunaldiak. Ejea eta Beasain taldeei irabazi eta Naxararen kontra berdindu eta gero, martxa ona hartu zuela zirudien, baina gero Barakaldoren kontrako porrota eta Zaragoza azken sailkatuaren kontrako berdinketa heldu dira. Bere-ziki mingarria izan zen azken hori, Zaragozako filiala hamar jokalarigaz aritu zelako lehenengo zatia indartsu hasi zuten eta aukera argiak huts egin zituzten, baina ezin izan zuten irabazi etxean, zaleen aurrean.
Testuinguru horretan egingo diote bisita domeka honetan Errioxako CD Alfaro taldeari. Azkenengo sailkatuaren kontra lortu ezin izan zuten garaipena azken-aurrekoaren kontra lortzen ahaleginduko dira. SD Amorebieta hamargarren tokian sailkatuta dago une honetan, eta kasik goiko postuak bezain gertu ditu behekoak. Beraz, aste-buruko emaitzak argituko du hurrengo jardunaldietan gora ala behera begira ibiliko diren zornotzarrek.



Ruiz de Infante txapelketako partidu batean, sakea ateratzera doala. MASTER CUP

PILOTA

Ainhua Ruiz de Infante binakako txapelketako finalaren bila, domekan

J.D. OTXANDIO
Emozioz beteriko azken jardunaldiaren ondoren, Ainhua Ruiz de Infante eta Nora Mendizabalek binakako Master Cup txapelketako finalerdietara sailkatzea lortu zuten joan zen asteburuan. Finalerdietako neurketa Agurainen jokatuko dute, domeka eguerdian, eta Arrizabalaga eta Bergara izango dituzte aurkari. Azken horiek dira faborito, li-gaxkan jokaturiko partidu guztiak irabazi dituzte eta. Sei partidutan 61 tanto baino ez dizkiete egin.
Irabazi eta itxaron
Joan zen asteburuan, hainbat bikote lehia betean izan ziren finalerdietara sailkatzeko. Ruiz

de Infante-Mendizabal izan zen bikote horietarikoa bat. Barikuan etxeko lanak ondo egin zituzten Ortuellan, Gomez-Capellan bikoteari irabazita: 22-8. Baina garaipena ez zen nahikoa, sailkapena beste emaitza batzuen menpe ere bazegoen eta. Horregaitik, domekan adi jarraitu zioten Igorreko jardunaldiari. Bertan, Sagarduik eta Gamindek 22-11 menderatu zituzten Ibarrola eta Erasun. Lehenengoak sailkapeneko bigarren postura igo eta bigarrenak kanporatuta geratu ziren, Ruiz de Infante-Mendizabal bikotearen mesedetan. Hiru garaipenengaz berdinduta, tanto aldea azken hauen aldekoa izan da.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

MARTXOAK 6, BARIKUA 09:00-09:00 Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MARTXOAK 7, ZAPATUA 09:00-09:00 Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MARTXOAK 8, DOMEKA 09:00-09:00 Sarria, Sasikoa 17- Durango Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MARTXOAK 9, ASTELEHENA 09:00-09:00 Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MARTXOAK 10, MARTITZENA 09:00-09:00 Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MARTXOAK 11, EGUAZTENA 09:00-09:00 Navarro, Artekalea 6 - Durango Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MARTXOAK 12, EGUENA 09:00-09:00 Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

GOZATU
GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 401 400
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

OROIGARRIA

Anboto eskelak:

ESKELAK JARTZEKO:
946 816 558 edo anboto@anboto.org

Modulo bateko Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **75** / Anboto kideendako **65**

Bi modulotako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **115** / Anboto kideendako **105**



Unax
Zorionak, **Unax!** 6 urte egin dituzu. Jarraitu hain polita eta alai izaten. Musu handi bat etxekoan partez.



Paul
Zorionak, **Paul!** Martxoaren 8an 11 urte egingo dituzu. Egun polit bat izan dezazula espero dugu. Etxekoan partez besarkada eta muxu handi bat!



Urko
Legorralde txikia ere badoa gora. Zorionak, Urko, jarraitu orain arte bezain bizi! Mosu potolo bat Abadiñotik!

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitez Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus

ESKUTIK ESKURA
EGITEN DUGU
HERRIA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estrea, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

INMOBILIARIAK

 ERAIKUNTZA BERRIA AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera. ARANDOÑOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. C.E.E=B. AUKERA ERRETENTXU: 62m2-ko lokala. Egokitua. Salgai. 53.500 €. SAN INAZIO Garajea. 11.000 €. ALLUITZ Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehioa 2 kaletara. 110.000 €. ABADIÑO Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. 29.000 €. ETXEBIZITZAK SALGAI MATIENA Trañabarren. 112 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela terrazarekin. Ikuspegiak. C.E.E=F 230.000 €. IURRETA Dantzari. 79 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. C.E.E=E 150.000 €. OTXANDIO: ETXEA. 262 m2. 3 solairu. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. C.E.E=B 165.000 €. MAÑARIA: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €. DURANGO: Erdi-banatu. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. C.E.E=E 635.000 €. BASERRIA, ZORNOTZA: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. 470.000 €. C.E.E=F MUNTSARATZ: Baserría. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €. LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 80 m2. Egokitua. Alokairuan. 1.600 €. MATIENA: Trañabarren. 60 m2. Salgai, etxebizitzarako aukerarekin. 75.000 €. ERMODO: Taberna. 123 m2. Alokairuan: 1.000 € / Salgai: 306.000 €. IZURTZA: Pabilioia. 261 m2. Egokitua. 195.000 €. DURANGO: 100 m2-ko lokala. Alde zaharra. Egokitua. 115.000 €. MASPE: 150 m2-ko lokala. 90.000 €. KOMENTUKALEA: 100 m2-ko lokala. Egokitua. 160.000 €. IURRETA: Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. 75.000 €. ASTEPE: 40 m2-ko lokala. 70.000 €. ASKATASUN ETORBIDEA: 60 m2. Lokal egokitua. Kearentzako irteerarekin. 125.000 €. FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. Egokitutako lokala. Erakuslehioa. Alkoairuan. 2.900 €. MURUETA TORRE: 40m2. Salgai. 50.000 €. GARAJEAK SALGAI MONTEBIDEO: Garajea. 10.000 €. MONAGOTORRE: Garajea. Erdigunean. 13.000 €. ASKATASUN ETORBIDEA: Garaje itxia. 19.000 €. ALLUITZ: Garajea. 17.000 €. PLATERUEN PLAZA: Garajea trastelekuarekin. 22.000 €.	 ETXEBIZITZAK SALGAI BERRIZ DUPLEXA SALGAI. 4 logela, sukaldea, egongela, 3 komun eta 3 bainugela. garajea eta trastelekua. DURANGO GOIENKALEA: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. KURUTZIAGA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko. BARRENKALEA: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua. TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua. BARRENKALEA: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua. GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. ATXONDO ATXONDO: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa. ATXONDO: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara. LURSAILAK SALGAI URRUTXUA: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan. BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA: Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko. MUXIKA: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserría. 90.000 €. ABADIÑO: Etkezurín kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara. BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz. MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko. BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia bame. DURANGO ERMODO KALEAN. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin. LOKALAK ALOKAIRUAN ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu. LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA: 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. ELORRIO: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest. LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ BERRIZ: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.	  C. E. E.: F. 274.000 € DURANGO SASIKOA 68,18m2. Halla horma-armairuekin, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Garaje itxia eta ganbara.  C. E. E.: Bidean. 339.000 € DURANGO PAGASARRI 83,57m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietatik 2 horma-armairuekin) despentsa eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du, argitsua. Ganbara eta garajea.  C.E.E.=E 164.000 € ABADIÑO SAN TROKAZ 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.  C. E. E.: F. 145.000 € ABADIÑO ASTOLA 70m2. Hallan, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. ITE-a pasatutakoa.  C. E. E.: G. 187.000 € BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALE-KUA 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.	 BERRIAK ABADIÑO-MATIENA TXINURRISOLO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. 180.000 € / E.E.Z=E DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 € / E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F E.BUSTINTZA KIRIKIÑO KALEA: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 150.000 € E.E.Z=G GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F ZUMAR PARKEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. 400.000 € / E.E.Z=E ABADIÑO DENDARIKOA: Zaharberttzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €. ATXONDO ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserría lursailarekin. 300.000 €. BERRIZ MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserría lurzorugaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 € EITUA: Berreraikitzeo baserría lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 € GARAI MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak. IURRETA ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ALLUITZ: Garaje itxia. 24.000 €. KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €. KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €. MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €. DURANGON ALOKAGAI MURUETATORRE: Garajea. 75 € / hilean. ANTSO EZTEGIZ: 45 € / hilean. Motorrentzat egokia. PLATERUEN PLAZA: Garajea, 75 € / hilean. TRONPERRI KALEA: Garajea, 75 € / hilean. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu. LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 60.000 € / E.E.Z=F ZABALE KALEA: 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F SAN MARTINPE ATARIA: 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. 250.000 €.
--	---	---	--

500 urtez, izanaren gida



SERGIO MURILLO
CORZO

Munduaren historia eta giza-diaren garapena immigrazioak zeharkatzen dauz, baita gure Herri eta eskualdeko historia eta garapena ere. Hori horrela izanagatik ere, giza-erlazioak eta mundua ulertzeko modu batek, euskal izaera deitu daiegunak, iraun dau Pirinioen alde bietan, Kantauri itsas bazterrean. Horregatik, historiako momentu hau oso karamilatsua izan arren, garetik ulertzen jarraitu behar dogu gertatzen jakuna.

Garen horri heldu nahian, aurtun 500 urte betetzen dauzan 1526ko Bizkaiko Foru Barrira jo dot. Badira garai hareetako kontestutik baino ulertu ezin daitekezan pasarteak. Beste batzuek aldiz, egungotasun itzela daukie, hiritartasunarena esaterako. Bizkaitar hareentzat, bertan jaio, bizi edo jarduten ebenei, dan-danei, bizkaitar lez jagokezan eskubide eta betebeharrak guztiak aintzatesten eutsezan. Neurri batean, gaur egungo hitzetan, hiritartasun unibertsala onartzen jaken bertan bizi ziranei, mendetasunik sortu barik.

Historiaren zama barik, izanaren gida garaiotan jarduteko. Euskaldun izatea hizkuntza bat izateaz gain, giza-erlazioak eta mundua ulertzeko modu bat ere bada. Garen eta daukagun hori, egunero barriztatze erantzukizuna daukagu.

"Antzinako alfonbrak ditut gogokoen; horiek transmititzen didate sentsaziorik gehien"

MAIDER REAL RODRIGUEZ DISEINATZAILEA

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Maidar Realek (Zornotza, 1984) Something Special sortu zuen orain 12 urte. Bilbon 11 urteko ibilbidea egin ondoren, iaz norabide aldaketa bat egin eta tailerra zabaldu zuen Zornotzan, autoak konpontzeko garaje bat eraberrituta. Horrek familiagaz eta lanagaz disfrutatzeko aukera eman dio eta sortzen diren beharrianetara egokitzea du erronka: "Pertsona eta sortzaile legez hazten eta garatzen jarraitzea". Pasioz berba egiten du antzinako alfonbra berbereez.

Lan egiteko modua aldatu duzu. Bilbon zenuen denda itxi eta tailerra zabaldu duzu.

Aurretik hitzordua hartuta lan egiten dut orain, bezeroari arreta pertsonalizatuagoa eskainita. Egoera pertsonal latza bizi izan dut, eta zirkunstantzietara egokitzeko joan naiz. Dena ondo joan da eta pozarren nago. Ez dut lan gutxiago egiten, beste modu batera baino.

Helburu berdinekin?

Bai, artisautza baloratzen duenari alfonbra berbereak salduta. Eskuz egindako lana estimatzen duen bezeroa da gurea, etxeari balioa ematen diona eta ordaintzeko prest dagoena. Bestalde, zerbitzu bat ematea oso garrantzitsua dela uste dut eta aholkua ematen ahalegintzen naiz, eta ahal dudanean denean egokitzen.

Zornotzan diseinatu eta Atlas mendilerroan egindako alfonbra berbereak saltzen dituzu. Horrek egiten du berezi Something Special?



Maidar Real, Zornotzan duen tailerrean. DANI DE PABLOS

Bai. Milaka urte dira emakumeek alfonbrak egiten dituztela Marokon. Tribu nomadetan etxeko altzari bakarra ziren askotan. Tapatzeko, gainean jesarrita jateko, etzateko, gortina legez... erabili dituzte betidanik. Orain 70-80 urte, Marokoko alfonbra koloretsu eta inperfektu horiek balioa hartu zuten, eta ekoizpena herrialde osora zabaldu zen. Teknika eta material berdinak erabili arren, alfonbra berriek ez dute antzinakoen sentimendurik gordetzen. Baina aukera ematen dute diseinua hemen



sortzeko, bezeroagaz. Gero, Marokoko emakumeen kooperatibetan egiten dituzte, eskuz.

Antzinako alfonbrak ere badituzu. 15 urte dira alfonbrak batzen hasi nintzela. Gehienek 50-70 urte dituzte, baina badaukat 100 urte dituen alfonbraren bat. Gatx da horrelakoak aurkitzea. Onenak Amerikan eta European daude. Hala ere, Marokora noan guztietan ahalegintzen naiz topatzen, izugarri gustatzen zait bilatze lan hori. Alfonbra bilatzailezat daukat neure burua. **Badauzkazu berdinak diren alfonbra bi?**

Ez, bezero berarentzat ez badira. **Zein da zure lotura Marokogaz?** Izugarri gustatzen zait. Ahizpa han bizi da eta hilero joaten naiz alfonbrak eta ehunak erostera. Etxerako kuxinak, gortinak, ohegainekoak... ere sortzen ditut, bezeroari zeozer gehiago eskaintzeko. Sortzaile legez aberasgarria da gainera.

Gatx da alfonbra bat aukeratzea? Bai. Gehienak nahiko galduta datoz. Elkarriketa labur bat izaten dut eurekin, aholkatzeko. Euren premia eta ohiturei buruz galdetzen diet, umerik edo animaliarik duten... Neurriak jakitea ere ezinbestekoa da.

Bost kontinenteetan saldu duzu. Bai. Namibiara (Afrika) ere bidali dut inoiz, safarietan lan egiten duen Bilboko bezero baten zat. Txinara hainbat, eta Australian ere badut bezero bat. European, Brasilen, AEBetan.. **Baduzu gogoan enkargu berezirik?** Antzinako alfonbrak ditut gogokoen, horiek transmititzen didate sentsaziorik gehien. Enkargu horiek asko gustatzen zaizkit. Antzinako gauzak maite ditut. Ekintza berezietarako alokatu ere egiten ditut; Netflix ere alokatu dizkiot, telesail baterako.

Motzean

Etxean falta ezin dena..

Alfonbra.

Maroko?

Kolorea eta tradizioa.

Alfonbra batean, kolore biziak ala apalak?

Antzinako alfonbrak maite ditut.

Inspirazio iturria?

Maroko, denda ere hango azoka txiki bat da.

ABADIÑO

SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Martxoaren 2tik 30era

%20KO DESKONTUA
sukalde eta altzarietan